ASTELEHENEKO
# Goienkaria
2010eko irailaren 27a > Astelehena > VI. urtea > 291. zenbakia > 1,10 euro
Goiena 10 URTE Komunikazio Zerbitzuak www.goiena.net TOKIKOM

"Chek iraultzarengatik edozer egin zezakeen: akabatu edo gezurra esan"



**Javier Arzuaga** Presoen kapilaua izandakoa > 08

**G2a** 80ko musika eta giroa Arrasateko gaztetxean > 29

**OÑATI** Ulmak duen gizarte erantzukizuna gestionatzeko fundazioa > 07

**ANGIOZAR** Auzoko maisua eta 'autobuseroa' omenduta Angiozarko jaietan > 11

**KIROLA** Mikel Galdos Gipuzkoako golf txapeldunari elkarrizketa > 27

**POLITIKA** > GERNIKAKO ITUNA

# Poza eta baikortasuna Gernikako ituna sinatu ostean

**ATZERA BUELTARIK EZ** Azpimarratu dute Gernikako itunak indartu egin duela prozesua atzeraezina dela

**HERRITARRAK** Lortutako babesaren garrantzia eta herritarren protagonismoa aldarrikatu dituzte

**AURRERA ETENGABE** Pausoak ematen segitzeko eta gura dutenen ekarpenak hartzeko gertu daude > 02

**BERGARA** > POLITIKA

## Elkororen familia hunkituta

Zapatuan sentitutako indarra eta elkartasuna Elkorori helaraziko diote asteon > 04

## Artisau azoka egunean Durana kalea jendez gainezka Aretxabaletako San Migeletan

Jai nagusiak abuztuan izan arren, argi geratu da San Migel jaiek aretxabaletarren artean harrera ezin hobea dutela; bereziki, artisau azoka eguneko ekitaldiek. Izan ere, azokaren arrakastaz gainera, herri bazkariko partaidetzak gora egin du aurten.

Inazio Garro alkatea "pozik" azaldu da festak emandakoarekin, eta, besteak beste, herriko abesbatzaren kontzertua herrikideen artean oso preziatua dela nabarmendu zuen. > 12



**JENDETSUA** Herriko trikitilariek girotu zuten artisau azoka jendetsua Durana kalean. JOSETXO ARANTZABAL

**AURKIBIDEA**

**Debagoiena** > 04-07
**Elkarrizketa** > 08
**Iritzia** > 10
**Herriak** > 11-20
**Kirola** > 21-27
**Kultura** > 29-30
**Berri-zakua** > 31
**Sailkatuak** > 32-33
**Telebista-Irratia** > 35
**Argazki lehiaketa** > 36-39

**JAIAK** > SAN MIGELAK OÑATIN

## Alustitza eta 'Ttiki' nagusi Oñatin

12 artzain eta beste horrenbeste txakurren artean garaile izan ziren Alustitza nafarra eta *Ttiki* txakurra. Bestalde, omenaldia egin zioten hilda dagoen *Bizkor* txakurrari, azken zazpi urteotan sei txapel eroateagatik. > 14



Antonio Alustitza eta *Ttiki*. A.E.

Goiena kluba
Liburu sorta bat opari. Nahi?
Zoaz 23. orrialdera



**POLITIKA** > GERNIKAKO ADIERAZPENAREN SINATZAILEAK

# Baikor eta aurrera segitzeko gogoz, Gernikako sinatzaileak

**ATZERAEZINA** Gernikako ituna sinatu zutenek uste dute Euskal Herrian abiarazitako prozesua atzeraezina dela eta herritarren inplikazioa ezinbestekoa

**POZA ETA BAIKORTASUNA** Itun hori benetan pozgarria dela diote, eta herritarren artean baikortasuna eta aurrera segitzeko gogoa somatu zutela

**PAUSOAK EMATEN SEGITU** Aurrera segitu beharra dagoela azpimarratu dute eta prozesura gerturatu gura dutenendako ateak zabalik izango direla




Xabier Zubizarreta, ezker abertzaleko ordezkaria Goienaren egoitzan. U.M.



Oxel Erostarbe, Aralarko Gipuzkoako koordinatzailea, Arrasaten. U.M.



Ander Rodriguez, Alternatibako bozeramailea, Arrasaten. U.M.




Pello Urizar, EAko idazkari nagusia, Goienaren egoitzan. JUL

**UBANE MADERA** > ARRASATE

*Bake bidean aterabide demokratikoa* ituna sinatu zuten zapatuan Gernikan, besteak beste, ezker abertzaleak, Aralarrek, Alternatibak eta Eusko Alkartasunak. ETAri "su-eten iraunkor eta aldebakarrekoa" exijitu zioten, batetik; eta bestetik, gutxieneko demokratikoen beharra aldarrikatu zuten.

Horren ondotik etorri zen atzo *Gara*-n bi ETAkideri egindako elkarrizketa. Besteak beste, haiek ere gutxieneko demokratikoen beharra aldarrikatu zuten, eta adierazi ETAk badaukala "su-eten iraunkor eta egiaztagarria emateko prestutasuna".

Gernikako itunean parte hartu duten alderdien ibarreko ordezkariek uste dute azken urratsek agerian uzten dutela abiarazitako prozesuak ez daukala atzera bueltarik eta baita ere Gernikan emandako "indar metaketa" oso positiboa dela.

**EZKER ABERTZALEA**

Xabier Zubizarretaren esanetan, prozesua "atzeraezina da, baina ez ETAk erabaki bat hartu duelako, baizik eta Euskal Herria martxan jarri delako. Atzeraezina egingo du prozesu hau euskaldunok, euskal hiritargoak protagonismoa hartzen badugu egoera honetan eta bere eskubideen aldeko lana egiten segitzen badugu".

"Nabaritzen zen jendearen poza alde batetik, eta pozarekin batera aurrera egiteko irmotasuna eta gogoa, eta uste dut jendea ikusten hasi dela benetan gauzagarria dela Euskal Herriaren askatasuna eskuratzea poliki-poliki; ez da egun batetik bestera izango, baina nik uste dut indar metaketa lortzen badugu euskaldunoi dagozkigun eskubideen defentsaren inguruan benetan lortu egingo dugula egun baten Euskal Herria askatuta ikustea".

"Une honetan egoera demokratiko batera heltzeko baldintzak inork betetzen baditu Euskal Herria da eta estatu espainola eta frantsesa oso urruti daude oraindik eskubide horiek errespetatzeik eta gauzak aurrera joango badira haiei dagokie orain urratsak egitea".

**ARALAR**

Aralarko Oxel Erostarbek ere argi ikusten du prozesua atzeraezina dela eta argi dauka, baita ere, Gernikako itunaren ostean, ETAri eta Espainiako Gobernuari dagozkiela pausoak ematea: "Bake eszenatoki bat topatzeko bideari ekin diogu, eta aldarrikapen batzuk argi egiten ditugu: batzuk Estatuari begira eta beste batzuk ETAri begira. Bakoitzari dagokio bestearen zain egon barik bere pausoak ematea, eta ETAri dagokiona da alde bakarreko su-eten iraunkorra eta egiaztagarria lehenbailehen ematea, herri honi zor dion gauza bat delako".

"Oso pozgarria da Aralarren hasieratik gauden denondako eta ibilbide honetan lagun egin ditugunondako Gernikako akordioa; besteak beste, gero eta gehiago garelako argi berbetan hasi garen ezkerrekoak eta abertzaleak eta gero eta gehiago garelako Estatuari eskatzen diogun gauza berak eskatzen dizkiogunak ETAri: alde bakarreko pausoak emateko".

"Gaudenak zain egon barik gure pausoak ematen segitu behar dugu, argi berba egiten eta bake eszenario baten alde".

**ALTERNATIBA**

Alternatibako Ander Rodriguezen ustez, Gernikako itunak indartu egin du orain arte egindakoa: "Gernikakoak atzeraezinkortasuna areagotu egin du. Uste dugu, baita ere, nazioarteko bitartekarien partaidetzak atzeraezinkortasuna areagotu egingo zukeela, baina uste dugu batez ere herritarren inplikazioa lortzen dugun neurrian lortuko dugula prozesuaren atzeraezinkortasuna.

"Pilota euren teilatuan dago, eta baita ETAren teilatuan ere; eskaera zehatza egin zitzaion eta uste dugu erantzun zehatza eman beharko duela; eta baita Espainiako Gobernuak ere (...) Gainerako indar politikoei dagokienez, esan behar da dokumentua zabalik dagoela eta gertu gaudela gainerako eragile sozial, politiko eta sindikalekin berba egiteko, jakiteko zeintzuk diren *bidaia orriari* egin gura dizkioten ekarpenak.

"Prozesua luzea izango da, pausoak ematen joango dira, baina horrek ez du esan gura ez dugula egin behar horren aldeko apusturik eta ez dugula Euskal Herriarako bakea eta normalizazio politikoa lortzeko konpromiso eta apusturik egin behar".

**EUSKO ALKARTASUNA**

Eusko Alkartasunaren izenean Pello Urizar idazkari nagusia izan zen Gernikan. Borondatea dute prozesua atzeraezina izateko. Baina ETAri eskaerak egin dizkioten neurrian, Urizarrek argi du gehiago behar dela aurrera egiteko: "ETAk pausoak eman behar ditu Euskal Herrian dauden askok euren burua mehatxatuta senti ez dezaten, baina hori txanponaren aurpegi bat da. Beste aurpegian daude beste eskubide batzuk ez direnak bermatzen gaur egun, beste jende asko sufritzen dago; Espainiaren legea hor egon arren, lege hori bete barik sufritzen dabiltzan asko daude".

"Egin behar duguna da prozesua segitu eta ahalbideratu atzo egon ez ziren batzuk, gutxienez, egon daitezen; badakigu denak ez direla egongo, baina ahalik eta gehien egotea positiboa da prozesua sendotzeko eta, denok espero dugun moduan, prozesuak atzera bueltarik izan ez dezan".

"Badakigu gizartearen gehiengoa ados egongo dela eta gizartearen gehiengoak babestuko duela prozesua eta ez duenak gura egon ez da egongo, baina geratuko da izkina batean gutxiengoan".

# LANBIDE HEZIKETA OÑATIKO INSTITUTUAN 2010-2011

%100 DIRUZ LAGUNDUTA

## LANGILE ETA LANGABETUENTZAKO IKASTAROAK

EUSKAL HERRIKO LANBIDE KUALIFIKAZIOEN SISTEMARI LOTUTA (KATALOGO MODULARRA)

| IKASTAROAK | ORDUAK | AURREIKUSITAKO DATA |
|---|---|---|
| **MEKANIZAZIOA** | | |
| KROKIZAZIOA | 40 | 2010 / 10 / 13 |
| METROLOGIA – EGIAZTAPEN DIMENTSIONALA | 40 | 2010 / 10 / 25 |
| LAN ARRISKUEN PREBENTZIOA | 40 | 2010 / 11 / 15 |
| TORNU KONBENTZIONALEKO MEKANIZAZIOA | 80 | 2010 / 11 / 15 |
| TORNO CNC PROGRAMAZIOA | 50 | 2011 / 01 / 10 |
| TORNO CNC MEKANIZAZIOA | 50 | 2011 / 01 / 31 |
| FRESATZEKO MAKINA KONBENTZIONALEKO MEKANIZAZIOA | 80 | 2011 / 02 / 21 |
| FRESA CNC PROGRAMAZIOA | 46 | 2011 / 05 / 09 |
| FRESA CNC MEKANIZAZIOA | 50 | 2011 / 05 / 30 |
| **MANTENUA ETA MUNTAIA ELEKTROMEKANIKOA** | | |
| MANTENTZE MEKANIKOA | 60 | 2011 / 02 / 28 |
| MANTENTZE ELEKTRIKOA | 80 | 2011 / 01 / 17 |
| AUTOMATISMO NEUMATIKO ETA ELEKTRONEUMATIKOA | 40 | 2010 / 11 / 08 |
| **DISEINUA** | | |
| CAD 2D - AUTOCAD | 40 | 2011 / 01 / 17 |
| CAD 3D - SOLID EDGE I - MOD. ETA PLANOAK | 40 | 2011 / 02 / 07 |
| CAD 3D - UNIGRAPHICS | 40 | 2011 / 03 / 14 |
| **SOLDADURA** | | |
| SOLDADURA ELEKTRIKOA | 55 | 2010 / 10 / 25 |
| SOLDADURA MIG-MAG | 50 | 2010 / 11 / 22 |
| SOLDADURA TIG | 50 | 2011 / 01 /10 |
| SOLDADURA OXIAZETILENIKOA | 60 | 2011 / 01 / 31 |
| **INFORMATIKA** | | |
| MS WORD | 20 | 2010 / 11 / 15 |
| MS EXCEL | 20 | 2010 / 12 / 13 |
| MS ACCESS | 20 | 2011 / 01 / 17 |
| INTERNET ETA KORREO ELEKTRONIKOA | 20 | 2011 / 01 / 31 |
| **ENERGIA BERRIZTAGARRIAK** | | |
| EGUZKI ENERGI FOTOBOLTAIKOA ETA TERMIKOA | 40 | 2010 / 11 / 15 |

IZENA EMATEKO EPEA ZABALIK

zuazola-larraña oñatiko b.h. institutua

KALITATEA HEZKUNTZAN

**IZENA EMATEKO:**
Oñatiko Institutua
Larrañako Lanbide Heziketa Egoitzan
San Lorentzo auzoa z/g
Tel.:943 78 21 50
09:00-13:00 / 13:30-17:30
www.onati.net

EUROPAR BATASUNA UNIÓN EUROPEA EUROPAKO GIZARTE FUNTSA FONDO SOCIAL EUROPEO
HOBETUZ
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

**POLITIKA** > JOSE LUIS ELKORORERN ALDEKO MARTXA

# "Halako ekimenek oxigeno asko eta indarra ematen digute aurrera egiteko"

Agurne Barruso Bergarako alkateak azpimarratu zuen Jose Luis Elkoro kartzelan sartu zutela "herriaren alde egindako lanarengatik"

**UBANE MADERA** > BERGARA

"Eskertu egin behar diegu egun osoan parte hartu duten igerilari, traineru, korrikalari eta Bergarako herriari, amaiera horrengatik", begiak bustita zituela bibok helarazi zituen Kristina Elkorok, Jose Luis Elkororen alabak, zapatuko martxaren amaieran, Montzonen etxe aurrean.

**HERRIAREN ALDE EGITEAGATIK**

Bestelakoen artean, Agurne Barruso Bergarako alkateak hartu zuen hitza ekitaldiaren amaieran; hark gogora ekarri zuen Jose Luis Elkorok "indarrak batzean eta elkarlanean sinistu" zuela 1976ko alkateen mugimendua abiarazi zuenean, eta azpimarratu zuen horixe dela bidea Elkororen askatasuna lortzeko. Salatu zuen Elkoro zigortuta dagoela "herriaren alde egindako lanarengatik".



Mari Tere eta Isabel Elkoro (arrebak), Mari Karmen Aiastui (emaztea) eta Irene Arrillaga (loiba), Bergarako plazan. J. ARANTZABAL



Pedro Iturbe, Antzuolako alkatea, lekukoa hartzen. JOSETXO ARANTZABAL



**Aitor Rementeria**
Antolatzailea

"Martutenen jo zaio txalaparta, mendi tontor baten; handik kartzela ikusten zen, irrintziak eta etxafuegoak ere bota dira; hura jakinaren gainean zegoen eta uste dugu entzungo zuela".



**Kristina Elkoro**
Jose Luis Elkororen alaba

"Oso inportantea da, oso gogorra izaten ari da, bai aitarendako eta baita guretako ere; halako ekimenek oxigeno asko eta indarra ematen digute aurrera egiteko".



**Maite Rementeria**
Parte-hartzailea

"Itsasoz lotu genituen Bizkaia eta Gipuzkoa, olatu artean; nirekin joan da parte-hartzailerik gazteena (13 urte), eta hark eraman du elefantea neopreno barruan. Oso polita izan da".

**ELKARRETARATZEA** > ALKATEAREN KARGUGABETZEAREN KONTRA

# Herritarrek babesa azaldu diote Agirre alkateari




Herritar talde batek elkarretaratzea egin zuen Aramaioko plazan bariku iluntzean. MIREN MANIAS

Alkateak egindako herri galdeketa "ariketa demokratiko zuzena" dela diote herritarrek

**MIREN MANIAS** > ARAMAIO

Aramaioko herritarrek elkartasuna agertu nahi izan zioten egubakoitz arratsaldean Asier Agirre alkateari, Abiadura Handiko Trenaren gaineko galdeketa egiteagatik jaso berri duen zazpi urteko kargugabetze sententzia dela eta. Aramaioarrek elkarretaratzea egin zuten Herriko Plazan eta herri galdeketa "ariketa demokratiko zuzena" dela aldarrikatu zuten.

**HERRITAR UGARI**

Lagun eta herritar ugari batu zituen ekitaldiak eta herritarrek babesa agertu zioten alkateari. Horrez gainera, zigorrarekiko desadostasuna eta haserrea ere azaldu zuten. "Zergatik da ilegala herri galdeketa bat? Gure iritzia lau urtean behin hauteskundeetan bakarrik eman dezakegu? Eta zergatik ordaindu behar ditu alkateak honen guztiaren ondorioak?", adierazi zuten.

Alkateak dagoeneko jarri du sententzia horren aurkako helegitea eta adierazi du epai irmoa jakin bitartean herriaren alde lanean jarraituko duela. "Zigorra erabaki politikoa izan da, herriaren hitzaren eta Euskal Herriaren kontrakoa". Herriak galdetzen eta erantzuten jarraitu behar duela nabarmendu du Agirrek.

# KIBUC GURE AMETSA

## ALTZARIAK ETA OSAGARRIAK

## SUKALDE ETA BAINUETAN ESKAINTZA BEREZIA

**BEZEROAREN NEURRI ETA BEHARRETARA EGOKITUTAKO AURREKONTUAK EGITEN DITUGU.**

- BARNEALDEAK DISEINATU ETA ZAHARBERRITZEN DITUGU.
- URTE ASKOTAKO ESPERIENTZIA DUGUN LANGILE PROFESIONALAK GARA.
- ETXEAN EDOZEIN ERATAKO BERRIKUNTZAK EGITEARI BURUZKO AHOLKUAK EMATEN DITUGU.




**KIBUC**
altzari eta osagarriak

Azkenean gure etxean

gureametsa@kibuc.com
Landeta Hiribidea, 1 - 20730 Azpeitia
Tel.: 943 15 16 81

**KIBUC** Gure Ametsa
altzari eta osagarriak

www.kibuc.com

>> proiektu eta erreformak >> gremioen koordinaketa >> proiektu eta erreformak >> gremioen koordinaketa >>

**EGURALDIA** > UDAZKENA

# Udazkenean eguraldi "nahasia" izango dugula iragarri dute

Udari dagokionez, aurten euri gutxiegi bota duela nabarmendu dute Pello Zabala eta Joxe Landa eguraldi iragarleek

**MIRIAN BITERI**> BERGARA
Udazken "nahasia" datorrela diote eguraldi iragarleek. Ohikoa den moduan, irailaren 15ean hasi eta hilaren 22an amaitu ziren tenporei erreparatu die Pello Zabalak, eta iragarri du denetarik izango dela: "Tenporetan, haizea nahasia izan da, leun ibili eta okertu ez bada ere, eta datozen hilabeteetan ere horrelakoa izango dela ematen du; tenperaturak ere nahasiak izango dira. Laburbilduz, bueltaka ibiliko da, ilargi fase bakoitzean denetarik ekarriko du; euri gehiago ekar dezala, behintzat".

Joxe Landa eguraldi iragarlearen arabera, udazkeneko giro "tipikoa" egongo da datozen hilabeteotan. Urrian giro "gozoa eta atsegina" izango da; ez du ematen hego haizea asko zakartuko denik. Azaroa, ostera, "trakets samarra" izango dela dio; eta abenduan neguan egongo bagina bezala irudituko zaigula iragarri du. "Hotza nabarmenduko da eta petrala izango da eguraldia; negua aurreratuko balitz bezala".

**GORABEHERARIK GABE**
Europako Iragarpen Agentziaren txostenak aztertu ostean, Espainiako Meteorologia Agentziako EAEko zuzendari Margarita Martinek, bestalde, aipatu du udazkena "normala" izango dela, "gorabehera handi barikoa".

**UDA, EURI BARIKOA**
Udari begiratuta, bat etorri dira Zabala eta Landa, euri gutxiegi egin duela esatean. Zabalaren arabera ere "oso lehorra" izan da. Azken horrek gaineratu du iraila oso ona izan dela eta hortaz, batez besteko tenperatura, ohikoa baino "zertxobait" altuagoa.

DATUA

**128**
LITRO

Horixe da udan Arantzazun jaso duten euri kopurua. Abuztuan bota zuen gehien: 70 litro. Ekainaren 24tik 30era, 4 litro besterik ez; uztailean, 30; eta irailaren 23ra arte, 24.


Udazkenean, basoa. GOIENKARIA

ESANAK

**"Laburbilduz, bueltaka ibiliko da, ilargi fase bakoitzean denetarik ekarriko du; euri gehiago ekar dezala, behintzat"**
**Pello Zabala** > Eguraldi iragarlea

**"Abenduan hotza nabarmenduko da eta petrala izango da eguraldia, negua aurreratuko balitz bezala"**
**Joxe Landa** > Eguraldi iragarlea

> EKONOMIA
### Intermetagailuak egiteko planta berria zabaldu du Fagorrek

2009-2012 aldirako Konfortaren Plan Estrategikoaren harira, Fagor Etxetresnek intermetagailuak egiteko lantegia inauguratu zuten joan den astean, Basaurin. Inaugurazio ekitaldian Patxi Lopez lehendakaria izan zen, besteak beste.

Plantak 3.000 metro koadro ditu eta 6,3 milioi euroko inbertsioa izan du. Urtean 150.000 etxetresna elektriko egiteko gaitasuna du. Horretarako, 50 lanpostu sortu ditu Fagorrek; 2014rako 70 lanpostu izatea aurreikusi dute.

> EUSKARA
### Kilometroetara joateko autobusa jarri du Debagunek

Debaguneko euskara elkarteek domekan, urriak 3, Lezon egingo den Kilometroak 2010era joateko autobusa antolatu dutela jakinarazi dute.

Txartelak datozen egunotan jarriko dituzte salgai Debagoieneko euskara elkarteen egoitzetan; eta, hortaz, Gipuzkoako ikastolen aldeko jaialdira joateko interesa dutenek astean zehar pasatu beharko dute elkarteetatik bertatik. Debagunek deia egin du jendea ikastolen aldeko jaira joateko.



Joan den eguenean Arrasateko Herriko Plazan egindako elkarretaratzea. GOIENKARIA




**JENDARTEA** > GENERO INDARKERIA

# Elkarretaratzea, Miarritzen izandako hilketa salatzeko

Joan den astelehenean, 76 urteko gizonezkoak emazte ohia hil zuen eskopeta batekin tiro eginda

**M.B.** > BERGARA
Arrasateko Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Plataformak deituta, 20 lagunetik gora elkartu ziren joan den eguen arratsaldean Arrasateko Herriko Plazan, emakumeen aurkako biolentzia salatzeko eta, bereziki, joan den astean Miarriatzen hil zuten emakumearen heriotza salatzeko. *Emakumeei erasorik ez, no a las agresiones a las mujeres* lelopean egin zuten esandako elkarretaratzea.

Joan den astelehen iluntzean, 76 urteko gizonezko batek 69 urteko emazte ohia hil zuen Miarritzeko hirigunean dagoen Frias kalean, eskopeta batekin. Gizonezkoak hurbiletik egin zion tiro emakumeari sabelean, eta, ondoren, bere buruaz beste egin zuen, bularrera tiro eginda. Baionako prokuradore Anne Kayanakisek azaldu zuenez, aspaldian bikote izan ziren, orain dela 30 urte inguru banandu baziren ere.

**AURTEN, BOST HILDAKO**
2010. urtean, dagoeneko bost emakumek galdu dute bizia, bikotekide ohi edo semeek hilda: urtarrilean Elena Cal hil zuten, Tolosan; otsailean, Amelia Sanchez, Barakaldon; hil berean, Isabel Velez, Lasarte-Orian; eta uztailean, Amelia Amaya, Bilboko Txurdinaga auzoan.



Xabier Mugartza, Ulma taldeko eraikin nagusian. A.E.

Xabier Mugartza > Ulma fundazioko presidentea

# "Ulmak duen gizarte erantzukizuna gestionatzeko sortu dugu fundazioa"

ARANTZAZU EZKIBEL > OÑATI

**Eguenean aurkeztu zuten Ulmako auditoriumean Ulma fundazioa. Xabier Mugartza Ulma taldeko presidentea da fundazioko presidente ere. Realeko presidente Aperribai eta Mundukideko Gantxegi aurkezpenean izan ziren euren esperientziak azaltzen.**

**Ulma fundazioa sortu berri duzue. Zer da?**

Guk, kooperatiba bezala, gizarte erantzukizuna dugu; bada, hori guztia gestionatzeko sortu dugu fundazioa. Esan daiteke fundazioa bera berria dela, baina fundazioak egiten duena ez dela berria.

**Ze behar asetzeko sortu duzue fundazioa?**

Bi arrazoi daude: batetik, komunikazio edo marketin aldea dago. Egiten duguna ezagutzera emateko modua da, errekonozimendua, esan daiteke.

Bestetik, alde praktikoa dago. Lege aldetik, samurragoa da fundazio baten bitartez gestionatzea laguntzak.

**Zeintzuk izango dira fundazioaren helburuak?**

Fundazioaren helburu nagusia izango da gure inguruari laguntzea. Bertako instituzio eta entitateei laguntzea eta Ulmaren identitatea eta balioak ingurukoekin elkarbanatzea. Nolabait esateko, gure ekarpena egin gura dugu gizartean.

**Zeintzuek osatzen duzue fundazioa?**

Ulma fundazioan ez dago inor bertarako bakarrik lanean. Instituzio bat da Ulma taldean dagoena. Adibidez, patronatua bera Ulma taldeko kontseilu errektoreak osatzen du. Ni naiz fundazioko lehendakari, Ulma taldeko lehendakari naizen neurrian.

**Erantzukizun sozialari buruzko dekalogoa aurkeztu duzue. Zeintzuk izango dira erantzukizun horiek?**

Aurkeztu ditugu gaur egun egiten gabiltzan edo egin ditugun hamar ekimen. Azken finean guk laguntzen edo antolatzen ditugun ekimenak banatuko nituzke bi mailatan: maila sozialean egongo lirateke: euskara, kirola, kultura, GKEak...; eta beste maila izango litzateke hezkuntza: unibertsitatea, ikerketa...

**Aukera aprobetxatu duzue, gainera, zuen webgunea aurkezteko?**

Euskarazko *–www.ulmafundazioa.com–* eta gaztelerazko *–www.fundacionulma.com–* helbidea dauka webguneak.

Webgunean gure balioak edo instituzioaren alde estrukturala dago ikusgai. Bestalde, ikus daitezke egiten ditugun ekimenak eta elkarlanean norekin lan egiten dugun, besteak beste. Gainera, bloga dago, herritarrek euren esperientziak idatz dezaten. Argazkiak, ekimenen egutegia... denetarik daukagu.

Webgunearen zati garrantzitsu bat da laguntzak jaso ahal izateko orrialdea. Orain arte paperean jasotzen genituen laguntza eskaerak; orain, Internet bidez bete ahal izango da formularioa.

**Gainera, erantzukizun soziala hedatzeko kanal nagusia da.**

Bai, guk fundazio moduan egiten dugun guztia hor egongo da. Azken finean, informazioa hedatzeko modua izango da.

**Fundazioak, gainera, lan bazkide bat saritu zuen, egiten duen lan solidarioagatik.**

Bai, lehenengo aldiz egin dugu. Ideia izan da Ulma taldeko bazkideen artean, proiektu solidarioetan parte hartzen dutenen artean Indiara bidaia bat zozketatzea. Saritua izan zen Sevillako Ulma Construccion taldeko Gemma Madueño.

Indiako Anantapur eskualdera izango da bidaia. Han, Vicente Ferrer fundazioarekin elkarlanean ditugu proiektuak.

**Hurrengo ekintzak zeintzuk izango dira?**

Urriaren 15ean behaketa astronomikoa egingo dugu Ilatargi taldearekin, adibidez.

**"Guk egin edo laguntzen ditugun ekimenak sozialak eta hezkuntza mailakoak dira"**

**"Fundazioaren webguneak aukera ematen du laguntza eskaerak egiteko"**

**"Ulma taldeko bazkide solidarioen artean Indiara bidaia bat zozketatu dugu"**

---

etxeko leihotik



Usoa Agirre > uagirre@goiena.com

## Memoria historikoa berreskuratzeko nahiaz

Aste honetan Donostiako Zinemaldia izan da berbagai leku askotan. Julia Robertsekin txoratuta batzuk, desengainatuta beste batzuk... Nik ez dut aurten joateko aukerarik izan, baina zer pentsatua eman didate Zinemaldian estreinatu diren hiru lanek, memoria historikoarekin lotutakoak hirurak ere.

Lehena film bat da, *Izarren argia*, Saturrarango kartzelan 36ko gerraren ostean preso eduki zituzten emakumeen gainekoa. Beste biak dokumentalak dira: Saturrarango kartzelari buruzko *Debekatuta dago oroitzea* bata; eta Alfonso Etxegarai deportatuari eta haren emazte Kristiane Etxaluzi buruzko *Sagarren denbora* bestea. Xabier Mendiguren Elizegik *Sustatu.com*-erako egindako kritikan dioen moduan, xelebrea bezain lazgarria da Franco hil eta gero 35 urte pasatu beharra gerra zibilaz hitz egin ahal izateko.

Francoren gainean berba egiten da etxean, gure ingurukoen zenbait istorio ezagutzen ditugu, baina beste ezer gutxi, egia esan. Nik, adibidez, ez nuen Saturrarango kartzela horren berririk, eta seguru ez ditudala beste hamaika istorio jakingo, oraindik bizirik dirauten pertsona askok jasandakoak, gainera. Memoria historikoa berreskuratze aldera, ondo-etorriak izango dira beti horrelako film eta dokumentalak. Ea ikusteko aukerarik dudan.

**"Nik, adibidez, ez nuen Saturrarango kartzela horren berririk"**

**> Zinemaldian**
**izar asko izaten dira, baita izar izan nahi dutenak ere. Zapatuan neska madrildar bat ezagutu genuen. Azaldu zigun bere nahi bakarra dela hurrengo urtean guztiok berari jarraitzea, aurten Robertsi jarraitu dioten moduan.**

**> 'Argia' aldizkarian**
**irakurri nion Mikel Garcia kazetariari Euskal Zinemaren Galan sartzeko izan zuen elkarrizketa: "Zu nondik zatoz" - "*Argia*-tik" - "Ya, kontu euskaldunen eta halakoen berri emateň duzue ezta?" - "Bai" - "Tori pasea".**

---

POLITIKA > DEIALDIA

## ESK-k eguazteneko greba orokorrerako dei egin du

Hilaren 29rako 19:00etarako deitu dute elkarretaratzea Seber Altube plazan

A.E. > BERGARA

ESK-k bat egin du hilaren 29an, eguaztena, deituta dagoen greba orokorrarekin, eta deialdia egin die langileei mobilizazioetan parte hartzeko. Greba izango da Espainiako presidente Zapateroren gobernuaren erreformen aurka; Madril, Iruñea eta Gasteizko gobernuek suspertzen dituzten politiken aurka; eta gobernuek eta ugazabek CCOO eta UGTrekin suspertzen duten elkarrizketa sozialaren aurka.

**EZ DA HAUSTURA**

ESK sindikatuak ez du uste jarrera horrek haustura dakarrenik euskal gehiengo sindikalean. ESKren ustez, sindikatuen batasuna egitate puntual baten gainetik dago.

Elkarretaratzea izango da hilaren 29an, 19:00etan, Arrasateko Seber Altube plazan.

Javier Artzuagak (Oñati, 1930) Kubako iraultza bertatik bertara bizi izan zuen. Iraultza Habanara iritsi zenean, Ernesto Che Guevarak zuzentzen zuen *La Cabaña* kanpamentuan egon zen, presoen laguntzaile espiritual moduan. Cherekin harremana izan zuen, eta barruraino iritsi zitzaiola dio. Gizon leial, ondradu, krudel eta odol hotzeko moduan oroitzen du.

**Javier Arzuaga** > 'La Cabaña'-ko presoen kapilaua izandakoa

# "Chek iraultzarengatik edozer egin zezakeen: akatu edo gezurra esan"

LANDER MUÑAGORRI > OÑATI

**Javier Artzuaga oñatiarrak haurra zela txofer izan nahi zuen. Eta horretarako latina ikasi behar zela esan zioten, Arantzazun gora eta behera ibiltzen zen autobus gidariak latina zekielako. Era horretan igo zen Arantzazura 10 urterekin, eta 22rekin irten zen handik abade izendatuta. Hego Amerikako hainbat herrialdetan ibili da misiolari lanetan, harik eta zelibatoari uko egin eta ezkondu egin zen arte.**

**Kubako iraultzak bete-betean harrapatu zintuen bertan. Nola oroitzen duzu garai hura?**

Abade izendatu, eta Kubara bidali ninduten 1952an. Habanako auzo txiro bateko erretore izendatu ninduten. 1959an Fidel Castroren iraultzak hiriburuan harrapatu ninduen. Bertan geunen apaiz gehienak euskaldunak ginen, eta ia denok iraultzaren alde, berrikuntzen alde kokatu ginen. Justizia sozialean sinisten genuen, eta pentsatzen Fidel Castroren iraultzak horixe bera ekarriko zuela. Garai hartan gaztea nintzen, 30 urteak beteta neuzkan, eta iraultzan sinesten nuen.

***La Cabaña*-ko erretore zinen gainera...**

Bai. Bertan kanpamentu militar bat zegoen. 1959ko urtarrilaren 1ean Fulgencio Batistaren tropek *La Cabaña*-tik alde egin zuten, eta, egun bat geroago, Ernesto Che Guevararen tropak sartu ziren kanpamentuaren kargu hartzera. Camilo Cienfuegos Columbian zegoen, hiriaren beste aldean, eta Fidel Castro astebete geroago iritsi zen.

**Zu zeunden kanpamentuan ezagutu zenuen Ernesto Che Guevara. Nola izan zen lehen hartu-emana?**

Urtarrilaren 6an igo nintzen Che Guevara zegoen etxolara. Jakin-minak bultzatu ninduen, alde batetik; eta bestetik, nire burua erdi behartuta sentitzen nuen tropei nire zerbitzuak eskaintzeko eta, batez ere, kartzelan pilatzen ari ziren presoei laguntzeko. Lehen hartueman hura bitxi samarra izan zen. Marxista zela kontuan hartuta, apaiz bat nola hartuko ote zuen galdetzen nion nire buruari behin eta berriro. Eta oso ongi hartu ninduen. Berriketan egon ginen, eta nire asmoen berri eman nion.

**Eta zer iruditu zitzaion zure proposamena, zer esan zizun?**

Hala esan zidan: "Meza esatera? Ez, ez. *La Cabaña*-ko kapera itxi egingo da eta giltza itsasora botako dut. Kartzelara bai, preso daudenek apaiz baten beharra edukiko dutela iruditzen zait".

**Ze harreman mota eduki zenuen harekin?**

Asmarengatik gaixo zegoen bitartean, gau askotan bisitatzera joaten nintzen. Komandante moduan bisitatzen nuen, baina baita lagun eta gaixo moduan ere. Izan ere, laguntasunerako bidean zihoan gure harremana. Une oso atseginak igarotzen genituen, justizia, iraultza eta beste hainbat gairi buruz hitz egiten. Bada, kanpamentutik alde egitera zihoala, agurtzeko garaian, honela esan zidan: "Bion artean eduki dugun harreman honi nola deituko ziokie?". Nik ez nekien oso ongi, eta adiskidetasunera bideratzen zihoan harremana zela esan nion, baina oraindik puntu horretara iritsi gabe geundela. Hala erantzun zidan hark: "Errealitatean, zuk zure aldera eraman nahi ninduzun eta nik, berriz, nirera. Ahalegin horretan biok huts egin dugu. Ez gara lagunak, eta hurrengoan elkar ikusten dugunean etsaiak izango gara, parez pare".

**Nolakoa zen hura?**

Leiala zen, bere buruarekiko ondradua, iraultzailea erraietaraino, gizon krudela, eta odol hotzekoa. Gauza bat pentsatzen baldin bazuen, hura zen lehenengoa hori egiten. Ez zen gainerako liderren modukoa, gauza bat esan eta besteak bidaltzen dituzten horietakoa. Gauza bat esaten bazuen, berak pentsatzen zuena zen, ez zen gezurretan ibiltzen. Horren harira, inoiz ezin izan dut Ernesto Che Guevara hura ahaztu, barruraino sartu eta ukitu egin bainինduen. Urteak igaro dira, eta orain gauzak beste ikuspuntu batetik ikusten ditut. Orain iraultzaren ondorioak zeintzuk diren badakigu...

**Baina zuk hartan iraultzarekin bat egin zenuen...**

Batistaren erregimena eta zegoen miseria ikusita, hori bukatzea nahi genuen. Hego Amerikan Kubak baino behar handiagoa zuten herrialdeak zeuden, baina Kubak ere aldaketak behar zituen. Demokratikoki antolatutako hauteskundeak nahiago izango genituen, baina iraultza eskaintzen zitzaigun, eta ilusioak egin genituen. Denborarekin, ordea, kolore bateko diktadura beste kolore batengatik ordezkatu da. Bata ideologia batekoa, eta bestea aurkakoa. Zein den okerragoa? Biak txarrak.



Javier Artzuaga, Oñatiko bere etxean. LANDER MUÑAGORRI

SUFRIMENDUA

**"Chek sufritzen ikusten ninduen arren, ez zeukan inongo erreparorik"**

'LA GALERA DE LA MUERTE'

**"Fusilamenduen inguruan esaten ziren gehiegikeriak gezurtatzeko argitaratu nuen liburua"**

**Fusilamenduen testigu zuzena izan zinen. Cherekin horri buruz ere hitz egingo zenuen...**

Iraultzaren alde edozer gauza egiteko gai zen Che. Norbait erail behar bazen, akatu egiten zen; gezurra esan behar bazen, gezurra esaten zen. Nik esaten nion hori ez nuela ongi ikusten, eta zentzu horretan kontra jartzen ginen, baina ez genuen eztabaidatzen, hark ez bainինduen konbentzitzen, ezta nik hura ere. Sufritzen ikusten ninduen, eta ez zeukan inongo erreparorik ni sufriarazteko. Goizez eta arratsaldez presoekin egoten nintzen, eta gauez epaiketak nola manipulatzen zituzten ikusten nuen. Eta gero lagun ezazu pertsona hori bere heriotzera... Pelotoiaren alboan jartzen nintzen gurutze batekin, eta kondenatu guztiak niri begira... Horrek markatu egiten zaitu.

**Orduan hasi zinen iraultzan fedea galtzen?**

Bai, orduan pixkanaka hasi nintzen fedea galtzen, eta azkenerako erabat galdu nuen. Gizarteak, hala ere, aldaketa behar du, eta, hein horretan, ez dut federik galdu. Aldaketa horrek behetik etorri beharko du, eta ez dakit nola iritsiko garen horra. Iraultza batekin? Ez. Hori ez, beste zerbait; iraultza haren modukoek ez gaituzte inora bideratzen.

***Cuba 1959. La Galera de la muerte* (2007) izeneko liburua ere argitaratu duzu bertan ikusitakoak kontatzen.**

*La Cabaña*-ko fusilamenduak gogoratzen liburua argitaratu nuen, erralitatea izugarri aldatzen baita. Urte hartan 300 fusilatu egon zirela esaten zen, Chek *grazia* tiroa ematen ziela denei... Ia guztia puztu egiten zen, eta gezur asko kontatu, baita Cheren aurka ere. Egia esan behar zelako idatzi nuen liburua, inongo gehiegikeriarik gabe.

**Nola ikusten duzu Kubako gaur egungo egoera?**

Fidel Castrok 84 urte dauzka eta gaur egun gastatuta dago. Eta haren anaia Raul Castrori, berriz, karisma falta zaio. Herriak ez du dagoeneko agintaritza marxistarik nahi. Herria nekatuta dago beteko ez diren horrenbeste promesekin. Gainera, azken denboraldian Fidelek esan du eredu ekonomikoak porrot egin duela, horrenbeste urtean aurkakoa esan duen neurrian. Egoerak aldatu egin beharra dauka, ezinbestean.

Abantailaz betetako kluba!

Goiena kluba

# Atera etekina txartelari!




## Abantailak

- Goienkaria astelehenetan eta ostiraletan etxeko postontzian jasotzea
- Goienak antolatutako ekitaldi eta ikastaroetan prezio berezia
- Goienak kaleratzen dituen produktuetan prezio berezia: DVD kopiak, CDak, kamisetak, Goienkaria-ko Sailkatuak, eskelak, ekitaldietarako sarrerak... eta orain, opari eta deskontu paregabeak lortu ditugu zuretzat

**Eta gainera, Goiena Klubeko zozketetan parte hartzeko aukera izango duzu.**

## Deskontu bereziak

LILURA EDERTZE INSTITUTUA

**BERGARA (Bazkidearentzat eta lagunarentzat)**
- Laser depilazioa: hanka osoa + izterrondoa **-%15** + opari besapekoak (axilak).
- **-%20** elikagai-intolerantzia proban.
- **-%10** mikropigmentazioan: begietan, ezpainetan edo bekainetan.
- **-%10** fototerapia bidezko aknearentzako tratamenduan.

RENAULT AUTOBERRI

**ARRASATE/AZPEITIA/ELGOIBAR/IRUN/TOLOSA**
- **-%5** konponketetan, ez bada prezio itxia edo promozioa.
- **-%25** saltzen ditugun pneumatikoetan, urte osoan.
- Ordezkapeneko autoa 20 euro.
- Erosketetaren momentuan, goian aipatutako deskontua baino handiagoa badago, bezeroari deskontu handiena eskainiko diogu.

IKER SUKALDEAK

**ARRASATE/OÑATI**
- Sukalde osoa erosita, etxetresna elektriko bat opari.

Barceló BIDAIAK

**BERGARA/ARRASATE**
- **-%5** pakete konbinatuetan 600 eurotik gorako erosketagatik (eskaintza berezietan izan ezik).

ESTACIÓN DE SERVICIO ARRASATE (MECA) AVIA

**ESTACIÓN DE SERVICIO ARRASATE (MECA)**
**ARRASATE**
- **-%2** gasolindegian erregaia erosita.
- **-%2** dendako produktuetan.

MONDRAGON LINGUA

**ARRASATE /OÑATI (18 urtetik gorakoentzako bazkideentzat)**
- **-%15** ingeleseko eta euskarazko ikastaroetan, SISTEMA KONBINATUAN. Ikasturte osoan.
- **-%15** aurrez aurreko eskoletan. Eskaintzaren epemuga: 2010/03/01

naren FISIOTERAPIA ZENTROA

**ARETXABALETA**
- **-%15** zerbitzu guztietan.

CLINICA DENTAL BERGARA

**CLINICA DENTAL BERGARA**
**BERGARA (Bazkidearentzat eta familiako batentzat)**
- **-%10** zerbitzu guztietan
- **-%15** inplanteetan.
- 120 eurotik gorako tratamenduetan garbiketa doan.

TXURI-URDIN Donostia

**DONOSTIA**
- Bi erosi eta bat ordaindu ostiraletan, ez bada jaiegun, jaiegun bezpera, zubia edo oporraldia.
- **-%20** larunbatetan eta igandeetan, ez bada zubia edo oporraldia.
- **-%10** zubi eta oporraldietan.

AQUARIUM DONOSTIA-SAN SEBASTIAN

**DONOSTIA**
- Bi erosi bat ordaindu (sarrera garestiena ordainduko da).

LARRAÑAGA AUTOESKOLA

**BERGARA**
- **-%15** inskripzioa ordaintzean.

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA

**DONOSTIA**
- Bi erosi eta bat ordaindu (sarrera garestiena ordainduko da).

**Enpresendako: Zure enpresa Goiena Klubean eskaini nahi baduzu jarri gurekin harremanetan.**

**Telefonoa: 943 25 05 05 | Posta-e: *kluba@goiena.com***

## kale inkesta

# Datorren egubakoitzean Migeltxu Kajoi ospatuko dute Iurretan; zer iruditzen zaizu?



**Nuria Santos**
Langilea
Arrasate

Niri berdin zait. Maritxu Kajoi eguna Iurretara eraman nahi izateak esan nahi du festa polita dela eta oso ondo dagoela. Ez dut gaizki hartu albistea. Horrela, beharbada, jende gutxiago etorriko da Arrasatera.



**Jon Perez**
Langilea
Arrasate

Ez zaidana askorik gustatzen da egun berean egitea. Beste egun batean egitea izango litzateke logikoena. Dena dela, ez dut uste Iurretan Migeltxu Kajoi ospatzeagatik hemengo festak behera egingo duenik.



**Maier Gallastegi**
Langilea
Arrasate

Joan den astean entzun nuen Iurretako kontu hori. Niri berdin zait. Ez naiz haserretuko horregatik. Jende gehiegi etortzen da Arrasatera egun horretan eta Iurretakoarekin igual jende gutxiago etorriko da.



**Aitor Etxabe**
Langilea
Arrasate

Niri ideia ona iruditzen zait. Jai herrikoiak eta parte-hartzaileak bultzatu behar dira; hori da, nire ustez, garrantzitsuena. Argi dago kopia hutsa dela, hor ez dago zalantzarik, baina ez zait txarto iruditzen.

## irakurlearen txokoa

# 943 25 05 05

goienkaria@goiena.com

BERGARA
**> Ibargarai kaleko garajeetan apurketak**

Bergarako irakurle batek idatzi digu esanez joan den astean Ibargarai kaleko garajeetan, aparkaleku publikoaren azpian daudenetan, hainbat apurketa egin zituztela. Besteak beste, bonbilla mordoa apurtu zituztela eta egun batzuetan argi barik egon direla azaldu du. Umeak aste bukaeretan garajeetara jolas egitera sartzen diren susmoa dauka bergarar horrek.

OÑATI
**> Haurren danborradarekin pozik**

Oñatiko guraso batek telefonoz deitu digu esanez zorionak eman nahi dizkiela Oñatiko haurren danborradako antolatzaileei eta baita bertan parte hartu zuten umeei ere. Eguraldiak batere lagundu ez zuen arren, danborrada oso polita izan zela esan digu: "Oso gustura ikusi genuen, lan polita egin dute aurten ere. Amaierako alardea, esaterako, oso polita izan zen".

LEINTZ GATZAGA
**> Auto lasterketen ostean, "zoroen moduan"**

Gatzagan joan den aste bukaeran auto igoera izan zuten; bada, gatzagar batek idatzi digu esanez lasterketa amaitu ostean bertara joandako gazteak "zoroen moduan" zebiltzala bidean gora eta behera. Horrelako lasterketak ikustera joaten diren autozaleei eskatzen die kontu handiagoarekin ibiltzeko eta errepidean dabiltzan gainontzeko autoak errespetatzeko.

## usteak uste

**Arritxu Barruso**

# Lanera barrez lehertzen

Goizean autoa hartu eta lanerako bidea egitea gogorra izaten da. Bada, azken asteotan irribarretsu, edo, hobeto esanda, barrez lehertzen egiten dut etxetik lanerako bidea. Fitxaje ederrak egin dituzte Euskadi Irratiak eta Radio Euskadik: Anjel Alkain eta Aitor Gabilondo. A zelako tipoa Alkain! Mundiala! Seguru nago azkenaldian beheranzko bidea hartuta zeukaten audientziek goranzko bidea hartuko dutela berriro ere. Umorearekin igo beharko audientziak, informazioarekin larri samar dabiltza-eta.

Seguru nago ez naizela bakarra eta autoko ibilerak atseginagoak direla orain asko eta askorendako Alkain eta Gabilondoren konpainian. Dena dela, arriskutsuak izatera ere irits daitezke; jakin dut pasa den astean, barre algara artean, ia-ia aurreko autoa jo zuela lankide batek.

## zorroztailea



**Joxemari Muxika**

# Ez jausi jokoan

"Kontrainsurgentziaren manualari tiraka, oztopoa,zango-traba eta ziri-sartzea, hori da oraingoz PSOE erakusten ari den jarrera, ... dena uler liteke hobeto gatazkaren irteera duinari baino, PSE PPrekin batera udal eta foru hauteskundeetan egin dezakeenari begira badago."

**"Eta hala ere, mugitzen da"**
Argia > 2010-09-26



Egia dirudi PP eta PSE-EE hauteskundeei begira ari direla, Rubalcaba, Ares, Mayor Oreja eta Basagoiti, PP+PSOE eta beraien kide eta sukurtsalek "interes berberak defenditzen dituzte": euskal herritarren 100.000 boto inguru baliogabe uztea eta horrela eurak erakunde publikoak kudeatzeko gehiengoa izatea.

Zapatero oposizioan zela hauteskunde lege famatua adostu zutenetik, Frankok "atado y bien atado" utzi zuen egoera politikoa Euskal Herrian aplikatzea dute helburu. Horretarako beharrezkoak diren aginduak ematen ari dira eta gainera sudurraren aurretik pasatzen dizkigute legeak bete baino ez dutela egiten esanez . Gora Euskadi askatuta deiadar egitea ausartzen diren guztiei askatasunak murriztuaz dihardute. Horixe da instituzionalizatuta dagoen "Frankismo soziologikoa"ren kudeatzaileek eta euren sukurtsalek (UPN, PSN, eta PSE-EE) dakarten ekarpen politikoa. Guztiak etiketa desberdina duten inperialista berberak dira.

**"Politika egiteko erakundeetan aritu behar da. Oposizioan gutxi aurreratzen dela adierazten du balantze historikoak. Ez da zilegi terrenoa libre uztea"**

Batzuk diote Alderdien Legeak eta eskubideak urratzen dituzten beste legeek "ez dutela lortu ezker abertzalearen jarduera etetea". Horrela da, baina hor biltzen den boto sailaren erdiak baino gehiago, ia denak, erakundeetatik kanpo daude eta politika egiteko erakundeetan aritu beharra dago. Oposizio hutsean gutxi aurreratzen dela adierazten du balantze historikoak.

Ezin gara euren jokoan jausi. Ezin badugu legeak zuzentzea lortu, ezin dugu boto baliogabeen bitartez euren politika egin dezaten bidea libre utzi, beraien jokaera indartzen uzten dugulako. Izan ere beraiek dira giza eskubideen aurka ari direnak. Ezin gara geratu boto baliogabea ematearekin, boto kontabilizazioa egiteko balio du baina ez politika egiteko eta horixe da eurak bilatzen dutena agintzen jarraitzeko.

Etorkizun urrunerako estrategia onak ezin du berekin ekarri gaurko errealitatea itotzea.

Ez da zilegi terrenoa libre uztea.

Ezin da jokoan jausi.

ASTELEHENEKO Goienkaria

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • E05 Basabe Poligonooa • 20550 ARETXABALETA
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi
**Asteburuko erredakzioaren arduraduna** Ubane Madera **Erredakzioa** Mireia Bikuña, Arantzazu Ezkibel, Arritxu Barruso, Miren Manias **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Diseinu arduraduna** Iñaki Iturbe **Maketazioa** Kepa Martelo **Publizitate arduraduna** Mireia Larrañaga **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazio arduraduna** Agurtzane Gaintzarain

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Ibarra kalea 6 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-0088/04 • **ISSN:** 1697 3542 • **Tirada:** 5.000 ale • **Difusioa:** 4.383 ale

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

ASTELEHENEKO GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA orrialdean edo kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

**Arrasate** > 16 **Bergara** > 17 **Oñati**> 18 **Aretxabaleta** > 19 **Eskoriatza** > 19 **Antzuola** > 20 **Aramaio** > 20 **Elgeta** > 20 **Leintz Gatzaga** > 20



**> ARRASATE**
Maritxutarako jantzia erosi beharrean aurreko urtekoa konpontzen dute askok **> 16**



**> BERGARA**
Asteon ireki ditu ateak Udalak Zabalotegiko eskola zaharrean ipini duen txiki-txokoak **> 17**



**> ELGETA**
Tapia, Petti eta Anthony Blake eta Yllanako aktoreak urrian izango dira antzokian **> 20**

**BERGARA** > ANGIOZARKO SAN MIGEL JAIAK

# Auzoko maisua eta 'autobuseroa' omendu dituzte Angiozarko jaietan



Anselmo Vegak eta Rufino Muñozek euskal makila bana jaso zuten. JOSETXO ARANTZABAL

**OMENALDIA**

Eskolaren alde eta auzoko garraioaren alde egin duten lana eskertu nahi izan diete

**ARRITXU BARRUSO** > BERGARA

Anselmo Vega eta Rufino Muñoz 1971n iritsi ziren Euskal Herrira. Vega Zamoratik Oñatira joan zen bizi izatera eta Muñoz, berriz, Segoviatik Arrasatera. Bada, biek ere Bergarako Angiozar auzoan amaitu dute; auzoko pertsonaia esanguratsu bi bihurtu dira, gainera: Rufino Muñoz Angiozarko autobus gidaria edo *autobuseroa* da eta Anselmo Vega edo *Mito*, berriz, Angiozarko maisua. Bada, zapatu honetan auzotarrek omenaldi berezia egin diete biei, auzoaren alde egindako lanarengatik. "Hezkuntza eta garraioa oso garrantzitsuak dira auzo txiki batean eta gaurko bi omenduek lan handia egin dute arlo horietan. *Mito*-k 25 urtetan gure eskola txikiaren alde lan handia egin du. Rufinoren autobusak ere asko egin du auzoaren alde", azaldu zuen Mila Elortza alkateak. Zapatu gauean, jaietako auzo afariaren ostean, euskal makila bana eman zieten.

**HERRI TXIKIETAKO LASAITASUNA**

Rufino Muñozek 37 urte daramatza Angiozarren eta pozik bizi da bertan: "Herri txikietako lasaitasuna gustatzen zait eta horregatik pozik nago Angiozarren. Auzotar guztiak ezagutzen ditut eta ondo konpontzen naiz denekin. Lagunekin afariak egitea eta berriketan egitea asko gustatzen zait". Gaur egun erretiratuta dago, baina urte askoan autobus gidaria izan da; Bergaran eta Angiozarren aurpegi oso ezaguna da: "Angiozarko *autobusero* moduan ezagutzen naute denek. Eskolara ume asko eraman ditut nik eta Labegaraietara lanera ere jende asko eramaten nuen sasoi baten". Muñozek pozik hartu du auzotarrek egin dioten omenaldia.

**ZAMORAKO EUSKALDUN ZAHARRA**

Anselmo Vega, Angiozarrera iritsi aurretik, Oñatin bizi izan zen hamar urtean. Euskal Herrira iritsi eta egin zuen lehenengo gauza euskara ikastea izan zen: "Euskal Herrira etorri nintzen, garai hartan hemen giro sozial berezia zegoelako, eta horrek atentzioa eman zidan. Dena dela, argi neukan Euskal Herrian bizi behar banuen, euskara ikasi behar nuela", azaldu digu Vegak. Lortu egin zuen helburua, eta ondo asko, gainera. Gaur egun euskaraz bizi da eta euskaraz egiten du lan.

Donostian Irakasle ikasketak amaitu eta lanean hasi zen. Horrela ezagutu zuen Angiozarko eskola txikia: "Asko gustatu zitzaidan. Herri txiki batetik nator ni eta eskola txiki baten ikasitakoa naiz. Berehala jakin nuen Angiozarren ondo bizi izango nintzela". Eskola txikiaren defendatzaile sutsua da eta lan asko egin du Angiozarko eskola txikiak bizirik iraun dezan. *Mito* ere aurpegi ezaguna da auzoan: "Angiozarko maisua naiz guztiedako". Auzotarren omenaldia gustura hartu du: "Sorpresa izan da, baina konturatu naiz zahartu egin naizela. Horrelako omenaldiak zaharrei eta erretiratuei egiten zaizkie", dio barrezka.



San Migel jaiak ospatzeko sardina eta saiheski jana egin zuten Angiozarren zapatu gauean. JOSETXO ARANTZABAL

## Gazte eta nagusi, den-denak dantzan ipini zituen Oihan Vega dj-ak

Egubakoitzean umeen danborradarekin hasi zitutzten Angiozarren San Migel jaiak, eta ordutik, gelditu barik ibili dira aste bukaera osoan. Zapatu gauean, esaterako, 160 lagun inguru elkartu ziren auzoko pilotalekuan sardinak eta saiheskia jateko. Afalostean dantzan egiteko momentua etorri zen. "Oihan Vegak sekulako giroa ipini zuen. Auzokoa denez guztiak ezagutzen gaitu eta dantzan ipini gintuen den-denok", azaldu du Mila Elortza alkateak. Atzo arratsaldean, berriz, sokamuturra egin zuten; jaietako hitzordu garrantzitsuenetakoa. Festak eta parrandak eguztenera arte jarraituko du Angiozarren.

ESANAK

"Euskal Herrira etorri nintzenean argi neukan euskaraz hitz egiten ikasi behar nuela; ez nuen desberdina izan nahi"

**Anselmo Vega** > Irakaslea

"Angiozarko 'autobuseroa' naiz; horrelaxe deitzen didate denek. Nire lanbideagatik jende asko ezagutu dut"

**Rufino Muñoz** > Erretiratua

**ARETXABALETA** > SAN MIGEL JAIAK

# Artisau feria arrakastatsua eta jai jendetsuak, Aretxabaletan



Aretxabaletarrek azokan erosteko ohitura dutela adierazi zuten saltzaileek. JOSETXO ARANTZABAL



Herritar gehienak baserritar jantzita irten ziren kalera. J.A.



Ohi legez, zanpantzar saioa ere egin zuten Durana kalean. J.A.



Motozerrarekin enborrak mozten, jendea begira duela. J.A.

## Eguraldiak askorik lagundu ez badu ere, San Migelen omenezko ospakizunek harrera ezin hobea izan dute

**MIREN MANIAS** > ARETXABALETA
Aretxabaletan San Migelak ospatu dituzte egubakoitzean hasi eta domekara bitartean. Ekitaldi ugari izan dituzte; guztiak ere herritarren gozamenerako.

Egubakoitzean erretiratuei eskainitako luncharekin eta dantzaldiarekin hasiera eman zieten jaiei aretxabaletarrek. Udalak herriko erretiratu guztiak omendu gura izan zituen San Migel jaiak zirela aprobetxatuta. Hala, Basotxo tabernan mokadutxoa eman zuten eta erretiratuen abesbatzak hainbat kantu abestu zizkien. Jatekoaren ondoren dantzaldia egin zuten.

**ARTISAU FERIA ETA HERRI KIROLAK**

Zapatuan herriko txistularien doinuekin esnatu ziren herritarrak. Jarraian, Durana kaleak hartu zuen jai giro nagusia; izan ere, urteroko artisau feriak eta azoka biologikoak aretxabaletarren ikusmina erakarri zuten. Goiz partean eguraldiak askorik lagundu ez bazuen ere, eguerdiko eguzki izpi lotsatiekin jendetza ibili zen azokaren bueltan. Jai giroa eta herritarren motorrak berotuta, herri bazkariak ez zuen harrera txikiagoa izan. "Aurten iaz baino jende gehiago dabil", azaldu ziguten.

Domekan herri kirolekin eta Aretxabaleta Abesbatzarekin agurtu zituzten ospakizunak. Inazio Garro alkatea "pozik" azaldu zen festak emandakoarekin.



**Jokin, Maite eta Izar**
Aretxabaleta

"Urteroko produktuak daude eta guztiak ere kalitate oso onekoak dira; gustura erosten ditugu. Gazta, barazkiak, frutak... denetik dago. Eguraldiak lagundu egin du, gainera, eta giro polita dago azokaren bueltan. Aurten ez gara herri bazkarira joango, baina arratsaldean seme-alabekin jai giroan murgilduta segitzeko asmoa daukagu; barraketara joango gara, seguruenez".



**Ageda Zeberio**
Segura

"Erleak ditugu guk eta haiekin lotutako produktuak ekarri ditugu: eztia, kandelak, kremak... Hamabost urte daramatzagu hona etortzen, eta jendeak denetik erosten du".



**Jesusa Lizarralde**
Elgeta

"Elgetakoa naiz, baina nire ahizpa hemen bizi da eta urtero etortzen naiz. Gaurko festa hari bisita egiteko aitzakia polita da eta azokatik buelta bat emateko ere aprobetxatzen dut".



**Roberto Martinez**
Aretxabaleta

"Urtero etortzen gara feria ikustera eta saiatzen gara zerbait erosten, saltzera etortzen direnek gure laguntza behar dute-eta. Ohi bezala, kalitate oneko produktuak daude".

**ARRASATE** > MARITXUREN NOBENAIXUE

# Inbutu preziatu erraldoia, Arrasateko erraldoiendako



Maritxu Kajoi Komisiñokuek inbutu preziatua ipintzen. JOSETXO ARANTZABAL



Herritarrak Maritxupean, Nobenaixoan egubakoitzean. JOSETXO ARANTZABAL

Nobenaixo jendetsu eta ikusgarrian Arrasateko Erraldoi eta Kilikien Konpartsakoek euren tamainako inbutu preziatua jaso zuten, egubakoitzean

**UBANE MADERA** > ARRASATE

"Maritxuk badauka halako kutsu berezi bat", zioten Maritxu Kajoi Komisiñokuek, ikusita egubakoitzean Maritxuren Nobenaixora gerturatu zen herritar talde polita. Gazta, ogia eta Errioxako ardo gorria partituz, barruko pozak askatzen lagundu zuen txikiteroen Ama Birjinak: "Bedeinkatuta dago eta osasunerako ona da", zioten batzuek; "beste ukitutxo bat" daukala uste zutenak ere asko ziren. Izan ere, Maritxuk "fededun" fidelak dituela agerian geratu zen egubakoitzeko Nobenaixuen.

Eta ezin ahaztu aurtengo omenduak: Arrasateko Erraldoi eta Kilikien Konpartsako kideak. 25 urteotako lana goraipatzen duen inbutu preziatua jaso ostean, gogoz egin zuten dantza plazan.



EAko kideak mahaiaren bueltan, Alkartetxean. JOSETXO ARANTZABAL

**ARRASATE** > ALKARTETXEAK 24 URTE

# Gernikako sinadura oinarri 24. urteurrenean

**U.M.** > ARRASATE

Eusko Alkartasuna alderdiko izen handiak elkartu ziren zapatuan Arrasateko egoitzan, Arrasateko Alkartetxearen 24. urteurrena ospatzeko: Pello Urizar EAko presidentea eta Arrasateko EAren arduraduna, Rafael Larreina exekutiba nazionaleko kidea, Amaia Larrañaga batzarkide ohia eta Arrasateko zinegotzi ohia eta, besteak beste, Iñaki Agirrezabalaga Zumaiako alkatea.

Haiekin batera izan ziren, jakina, Arrasateko eta inguruko bestelako alderdikideak. Meza entzun zuten lehenengo, hildako alderdikideen alde, eta bazkari oparoa egin zuten gero.

Bazkalostean, Rafa Larreinak Gernikako sinaduraren garrantzia azaldu zien.



**OÑATI** > SAN MIGEL JAIAK

# Oñatiarrek motorrak berotu dituzte jaiak ondo hasteko

Artzain-txakur txapelketan Antonio Alustitza nafarra izan da irabazlea 'Ttiki' txakurrarekin

**ARANTZAZU EZKIBEL** > OÑATI

San Migelak ofizialki hasi barik egon arren, oñatiarrek jai giro bikaina izan dute aste bukaeran. Haurren danborrada eta artzain-txakur txapelketa izan dira hitzordu garrantzitsuenetakoak; bietan, zeruari begira egon behar izan dute, euriak noiz atertuko zain.

Atzo, Santa Lutziako zelaian 12 artzain eta beste horrenbeste txakur batu ziren nazioarteko artzain-txakur txapelketa jokatzeko. Denetan onena Antonio Alustitza nafarra izan zen, *Ttiki* txakurrarekin. Oñatiko txapelketa irabazten duen bigarren nafarra da Alustitza; aurretik, Patxi Etxeberriak irabazi izan du.

**'BIZKOR' TXAKURRARI OMENALDIA**

Txapelketaren ostean omenaldi hunkigarria egin zioten azken urteetan txapeldun izan den eta dagoeneko hilda dagoen *Bizkor* txakurrari. Jose Mari Jauregik jaso zuen oroigarria. Azkeneko zazpi urteetan sei txapel eroan ditu Jauregik *Bizkor*-ekin; azken bostak jarraian, gainera.

Bigarren sailkatuak Pierre Pommes eta *Usso* izan ziren; eta, hirugarrenak Jose Mari Jauregi eta *Leze* txakurra. Bestalde, artzain-txakur arrazako txakur onenaren saria Jauregiren *Leze*-k eroan zuen.

Aurtengoa 51. nazioarteko txapelketa izan da.

**HAURREN DANBORRADA**

Bestalde, azken momentura arte zeruari begira egon behar izan zuten haurrek zapatuan. Zeruak atseden eman zuen momentua aprobetxatu zuten antolatzaileek kalera irteteko. 150 lagun inguru irten ziren danborradan: danbor-jotzaileak, banderaduna, inudeak, dantzariak eta musikariak.

Ohiko kalejira egin ostean plazan amaitu zuten danborrada; baina euriak ez zuen lagundu eta ez zuten astirik izan betiko zazpi piezak jotzeko. Bi pieza jo zituzten, tartean San Migel martxa.

**AUTO KLASIKOAK ETA EGITARAUA**

Atzo, domeka, auto klasikoak egon ziren ikusgai Unibertsitate aurrealdean. Denera 14 auto ikusgarri ekarri zituzten: marka eta kolore guztietakoak.

Motorrak berotu dituzte, hortaz, Oñatin San Migel jaietarako. Etzi, martitzena, hasiko dituzte jaiak ofizialki. 19:00etan trikitxarangaren kalejira eta 20:00etan Txantxikuaren jaitsiera eta pintxo dastatzea txosnagunean. 23:00etan izango da nagusien danborrada; eta ondoren euskal presoen aldeko manifestazioa.



Haurren danborrada Oñatiko plazara iristen. ARITZ BIAIN


Haurrak, euriak noiz atertuko zain. A.E.


Auto klasikoak unibertsitate aurrealdean. A.E.


Jose Mari Jauregi eta *Leze* txakurra; atzean, *Bizkor*-en argazkiak. A.E.


Lehenengo hiru sailkatuak. A.E.

## Sailkapena

| | |
|---|---|
| 1. Antonio Alustiza | 455 p. |
| 2. Pierre Pommes | 419 p. |
| 3. Jose Mari Jauregi | 384 p. |
| 4. J. Mari Pleguezuelos | 341 |
| 5. Juan Egurrola | 324 p. |
| 6. Michelle Atxeritogarai | 195 p. |
| 7. Marcel Uhal | 191 p. |
| 8. Julio Bayot | 180 p. |
| 9. Hilario Novillo | 173 p. |
| 10. J. Jose Arrizabalaga | 158 p. |
| 11. Jose Mari Istillar | 153 p. |
| 12. Jil Etxegoien | 139 p. |



Bitoriano Etxagibel alkate ohia, auzotarrek egindako omenaldian. 'MASKA'



Auzoko gaztetxoak Gorritiren animaliak menderatu guran. 'MASKA'



Garagartzako buzkantza famatuekin afari ederra egin zuten auzotarrek egubakoitzean. JOSETXO ARANTZABAL

**ARRASATE** > GARAGARTZA AUZOKO SAN MIGELAK

# "Larregiko ondo" ibili dira garagartzarrak auzoko jaietan

Buzkantzez gainera, San Migelek euria ere ekarri die garagartzarrei

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Nagusiak buzkantza janean, gaztetxoak Gorritiren animaliekin jolasean eta Bitoriano Etxagibel alkate ohia omenaldian. Guztiak ala guztiak gustura asko ibili dira, duda barik, Arrasateko Garagartza auzoko San Migel jaien bueltan. "Larregiko ondo" ibili direla diote eurek. "Zoritxarreko bakarra eguraldia izan da, hark endredatu ditu apur bat jaiak, baina bestela...", kontatu dute. Izan ere, egubakoitz zein zapatuko zaparradek mela-mela utzi zituzten gehienak.

Hori, baina, ez zitzaion inporta izango, seguru aski, Bitoriano Etxagibeli, auzokideen omenaldi beroa jaso du-eta, "urtetan auzo alkate izan delako eta auzoan urte asko eman dituelako lanean"; txapela hunkituta jantzi zuen, behintzat.

**EGUAZTENEAN GEHIAGO**

Ez dira, baina, jaiak oraindik bukatu. San Migel egunarekin ezin ahaztu, eta eguaztenean meza esango dute zaindariaren omenez (19:30) Garagartzan. Horren ostean luncha izango da auzo-etxean.

**BERGARA** > ARANZADI EGUNA

# Jolasean eta dantzan, "erabateko arrakasta" ikastolan

Guraso, ikasle eta irakasleen artean, ia 300 lagunek bete zuten Aranzadi ikastolaren patioa

**UBANE MADERA** > BERGARA

"Eguraldi hobearekin hobe, kanpoan egin ahal izango zelako; bestela, dena ondo irten da. Nobedade moduan dantza saioa ekarri dugu, eta erabateko arrakasta izan da". Hala baloratu du Ane Barrusok, Aranzadi ikastolako zuzendariak, zapatuan ospatu zuten Aranzadi eguna.

Ikasteko ere aprobetxatu zuten jaia: "Esperimentu kimikoak eginez lortu egin dugu limoiek argia ematea". Ez dakiguna da gero limoi horiek izan ziren mojitoak egiteko erabili zituztenak.



Patxi Montero arrasatearrak gidatu zuen dantza saioa, eta zale ugari izan zituen atzetik. U.M.

**JAIAK** > MARITXU KAJOI 2010

# Maritxu "alternatiboa", jostunak egindakoa

Dendan eskuratu beharrean geroago eta gehiago dira Maritxutarako aurreko urteko jantzia berrerabiliko dutenak, konponketatxoak eginda



Amaia Albes diseinugilea josteko makinan lanean buru-belarri, Maritxutarako enkarguak gertu izateko. U.M.

**UBANE MADERA** > ARRASATE

"Uda aurretik hasi zitzaizkidan batzuk komentatzen Maritxutarako zerbait gura zutela. Eta uda ostetik hona soineko askotxo konpondu eta aldatu ditut"; horixe da aurten Amaia Albes (Arrasate, 1989) diseinugile gazteak izandako esperientzia: 10-15 lagunen enkarguak eskuratu ditu.

Eta ez bakarrik krisian izanda aurreko urtekoa aprobetxatu gura dituztenen enkarguak. Ez. Dendetan aurkitzen ez den originaltasuna gura dutenen enkargu asko ere eskuratu ditu: "Gehienek hemengo dendetan edo Gasteizen erosten dituzte soinekoak; asko sinpleak dira eta beste asko errepikatuta ikusten dira. Nik eginez gero, berriz, tela bera ere neuk erosten dut, eta hori seguru ez dela hemen ikusiko".

Hala ere, jostun edo diseinugile batengana jotzea bide ona da, baita ere, iazko jantzia aprobetxatu eta dirua aurrezteko. "Soinekoaren behearen forma aldatu, eskotearena, detaileren bat jarri gerrian… norberari hobekien egokitzen zaiona", egiten du Albesek soineko original eta "berriak" lortzeko. Eta jakina, hori guztia, poltsiko guztietara egokituta: "Guztietarako aukerak daude; jakina, tela oso garestia baldin bada garestiago aterako da, baina bestela…".

Hori nesken kasuan; dena den, eta nahiz eta gutxiago izan, mutilak ere joan zaizkio enkarguekin: "Topatu dut txaketa bat bigarren eskuko dendan eta behar dut estutu… edo aitaitaren txaketa aurkitu dut, baina handia dut… iazko prakak estutu behar ditut… halako eskaerekin etorri zaizkit", kontatu du.

Beraz, oraindik jantzirik ezean, eta iazkoa aprobetxatu guraz gero, Amaia Albesek onartzen ditu enkarguak, "txikiak badira, denborarengatik" (655 71 40 78).

**ETXEAN EGITEKO GOMENDIOAK**

Dena den, jostun edo diseinugile batengana joan barik, halako konponketaren bat etxean egin gura duenarendako gomendioak ere eman ditu Albesek: "Erraza da beheak moztu eta forma aldatzea; luzea duenak, adibidez, moztu belaunetik gora; norberak egindako loreren bat jarri… Lau tontokeriarekin egin daiteke zerbait desberdina, eta aurreko urteko moduan jantzita ez irtetea lortu. Mutilen kasuan, berriz, gomendioa da gorbata aldatzea".

**SOINEKO MOTZAK**

Hori bai, halakoetan hasi aurretik komeni da kontuan hartzea aurtengo Maritxutako tendentzia: "Ikusi ditudan soinekoengatik, *palabra de honor* eskotea, eta batez ere soineko motzak. Bestalde, koloreak gero eta gehiago erabiltzen hasi dira; urdinak, grisak… kolore biziak, ez ilunak".

## Mondra taberna jendez lepo inaugurazioan

Eguenean zabaldu zuten Mondra taberna. Patxi de Andres presidentea pozik zegoen irekiera egunean izandako giroagatik. "Mondraren bizitza aldatu da gaur", adierazi zuen 21:00ak jota taberna itxi zutenean. 19:00etatik trago eta pintxoak musu truk eman zituzten, eta, nola ez, jendez lepo izan zen taberna. Hori bai, presidenteak espero du gainontzeko egunetan ere jendea tabernara gerturatzea.



JOKIN BEREZIARTUA

**JENDARTEA** > EMAKUME TXOKOA ETA JABETZE ESKOLA

## Ikastaroetako izenematea gaurtik egubakoitzera arte

Urritik abendura arte askotariko ikastaro eta tailerrak izango dira emakumeendako

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE

Emakume Txokoak eta Jabetze Eskolak urritik abendura arteko ikastaro eta tailerren berri eman dute. Ohikoa den moduan, eskaintza zabala da oso, denetariko ikastaro eta tailerrak eskainiko dituzte. Emakume Txokoak, besteak beste, yoga, pilates, dekorazio-arteak, Bollywoodeko eta Indiako dantzak, lotura afektiboak eta euskara ikasteko hastapen ikastaroa antolatu ditu. Jabetze Eskolak, bestalde, kameraren aurrean interpretatzen eta lidergoa eta talde lanean jarduteko ikastaroak antolatu ditu, besteak beste. Bestelako ikastaroen berri izan edo informazio gehiago gura duenak dei dezala 943 79 41 39 telefonora.

**IZENEMATEA, GAURTIK ZABALIK**

Gaur zabaldu dute izenemate epea eta egubakoitzera arte, urriak 1, egongo da zabalik.




> JENDARTEA

### 1959an jaiotakoen bazkarirako izenematea urriaren 27ra arte

1959an jaiotakoek ospakizun berezia egingo dute azaroaren 13an eta izena eman gura duenak urriaren 27a baino lehen 3035 0001 57 0010119477 zenbakidun kontu korrontean 50 euro sartu beharko ditu. Ospakizun egunean 12:30ean elkartuko dira Monte tabernan eta gero Sara Merenderuen bazkalduko dute.

> ARETOAK

### Jet Set diskoteka ireki dute lehen 3 aretoa zegoen tokian

Azken ukituekin amaitu aurretik, eguenean ireki zuten Jet Set diskoteka. Lehen 3 aretoa zegoen tokian zabaldu dute, eta, bertako arduradunen hitzetan, musika komertziala izango da nagusi aretoan eta goizaldean musika elektronikoa entzun ahalko da zuzenean. Maritxu Kajoi egunerako jai handia prestatu dute.

**JENDARTEA** > GIPUZKOA ERAIKITZEN EKIMENA

# Komunikazioak hobetzeko eskatu diote Egaña diputatuari

## Foru Administrazioko diputatua Bergaran egon da asteon hainbat herritarrekin batzartuta

## Hamabost herritar batu ziren harekin eta Bergaraz zein Debagoienaz egin zuten berba

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

Edurne Egaña Lehendakaritza eta Foru Administrazioko diputatua herrian izan da asteon Gipuzkoa Eraikitzen ekimenaren barruan. Kultura etxean izan zen, 15 bat herritarrekin batzartuta. Alde batetik, Gipuzkoako Foru Aldundiak azken hiru urteetan landutako kudeaketa planaren berri eman zien diputatuak; bestetik, han batutako herritarrek euren iritzi eta ekarpenak egiteko eta diputatuarekin partekatzeko aukera izan zuten.

Bergarako komunikazioak, Donostia eta Bilbo arteko errepideetako bide-sariak, doako autobiderik ez egotea, Bergarako ostalaritza-sektorea eta datorren urteko aurrekontuak izan ziren, oro har, bileran landu zituzten gaiak.

Galderak ere egin zizkioten Egaña diputatuari kultura etxean batu ziren herritarrek. Besteak beste, ostalaritza sektoreko herritar batek Debagoienaren egoera gainean galdetu zion diputatuari eta errepideak hobetzeko proposamena ere egin zion, konponbide moduan.

Horren harira, Edurne Egañak onartu zuen Bergarak zerbitzu ugari eskaintzen dituela, baina haien eragina txikia dela. Hori horrela, egoera hori aldatzeko duen ardura aintzat hartu zuen.

**GIPUZKOA ERAIKITZEN**

Gipuzkoa Eraikitzen izeneko ekimena Aldundiaren kudeaketa herritarrekin partekatzeko eta aztertzeko helburuarekin sortu du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Zehatz-mehatz, uztailaren 2an onartu zen Gizarte Parte Hartzeko Foru Arauaren lehenengo ekimena da Gipuzkoa Eraikitzen.

Ekimen horren barruan, Gipuzkoako diputatuak eta foru zuzendariak lurraldeko udalerrietako talde eta herritarrekin batzartuko dira otsaila bitartean eta herritarrei kudeaketa planaren exekuzioa eta emaitzak helaraziko dizkiete eta haien iritzi eta ekarpenak jasoko dituzte, Bergaran aurreko astean egin duten moduan.

Parte-hartzea bermatzeko eta hurbiletik herritarren iritzia ezagutzeko galdetegi bat pasa zaie ekitaldietara joandako herritarrei. Hala, Gipuzkoaren etorkizuneko proiektua diseinatzeko Aldundiak kontuan hartuko ditu galdetegian ateratako emaitzak eta prozesua amaitzean memoria bat osatuko dute emaitza horiekin eta publikoki aurkeztu dituzte, partaide guztiekin elkarbanatzeko. Galdetegi horrezaz gain, *www.gipuzkoapartehartzen.net* webgunea eta *gipuzkoaeraikitzen@gipuzkoaeraikitzen.net* posta elektronikoa ere herritarren eskura daude euren iritzia eman eta ekarpenak egiteko.

ESANAK

**"Bergarak zerbitzu ugari eskaintzen ditu, baina haien eragina txikia da; egoera hori aldatu beharra dago"**

**Edurne Egaña** > Diputatua

**JAIAK**

# Meza nagusia bihar Angiozarren

**M.B.** > BERGARA

Bihar, irailak 29, San Migel eguna da, Angiozarko zaindariaren eguna. Asteburu osoa jaietan murgilduta egon dira Angiozarren eta bihar emango diete amaiera jaiei, hainbat ekitaldirekin: 11:00etan meza nagusia egongo da, San Joxepe erretiratuen abesbatzak abestuta. Meza bukatu eta gero, luncha egongo da erretiratuendako, Pagomendi elkartean.

Bestalde, 13:00etan trikitilariek kalejira egingo dute; 16:00etan gaztetxoenendako puzgarriak egongo dira eta 19:00etan, berriz, merienda izango dute.

Jaiei bukaera emateko, San Migel zaindariaren irudia zeruratu egingo dute, urteroko ohiturari jarraituz. 20:00etan egingo dute hori. Horrekin guztiarekin, aurten San Migelen irudia noraino iritsiko ote den ikusteko dago.



M.B.

## Martxan dago Zabalotegiko txiki-txokoa

Aurreko astelehena ezkero zabalik dago Udalak Zabalotegiko eskola zaharrean ume txikiendako egokitu duen txiki-txokoa. 0 eta 4 urte artekoendako bi gune ditu, bata txikienendako eta bestea nagusitxoagoendako. Bestalde, moketa bota dute lurrean eta psikomotrizitatea lantzeko erabiltzen den materiala jarri dute –koltxoneta batzuk, kuboak... Jostailuak norberak eroan beharko ditu. Astelehenetik egubakoitzera egongo da zabalik, 17:00-20:00 ordutegian.

**oharrak**

UDALA

**> Ekonomia jardueren gaineko zerga ordaintzeko epea zabaltzear**

Urriaren 1etik azaroaren 10era egongo da zabalik borondatezko epea. Ordainketa banketxeren baten helbideratuta dutenei handik kobratuko zaie. Ez dutenek etxean jasoko dute ordainketa egiteko agiria. Agiria urriaren 31rako jaso ezean, udal bulegotik pasa beharko da.

IKASTAROA

**> Jardunek plazako dantzen ikastaroa abiarazi du**

Irailaren 28an hasiko dira eskolak eta izango dira martitzenetan: 19:30-20:30era izango da hastapen maila eta 20:30-21:30era, jarraipen maila. Irakaslea Patxi Montero izango da. Prezioa dira 12 euro hilean –10 euro Jardunekо bazkideendako–. Izena emateko jo Jardunera (943 76 36 61).

EUSKARA

**> Kilometroak 10 jaira joateko txartelak salgai daude Aranzadin**

Urriaren 3an Lezora joateko autobuserako txartelak salgai egongo dira hilaren 29ra arte, idazkaritzan.

HEZKUNTZA

**> Miguel Altunan matrikulatzeko azken egunak dira**

*Programazioaren produkzioa fabrikazio mekanikoan* delakoa arratsaldez, eskaintza partzialean egiteko, eta sarrera probarako gaiak prestatzeko ikastaroan izena emateko azken eguna irailaren 30a da.

Ukabi informatika

Enpresa kudeaketa aplikazioak
•
Era guztietako webguneen diseinua
•
Etxerako eta enpresetarako salmenta

Domingo Irala z/g
(Ariznoa aurrean)
BERGARA Tel.: 943 15 01 01




Eskaintza esklusiboa

Prezio hauekin, edonork izan dezake eskuko ordenagailua!

Acer Aspire 5734Z eramangarria

- Teknologia: Intel Pentium Dual Core T4500
- RAM: 4 GB
- Pantaila: 15,6 hazbete.
- Disko gogorra: 320 GB
- Integratutako webcama: Bai
- Sistema eragilea: Windows 7 Home Premium
- Txartel irakurlea
- Wi-Fi
- DVD±RW

... eta ehunka produktu eta eskaintza aurkituko dituzu gurean.

**HEZKUNTZA** > PROBAK

# Zuazola-Larrañan goi zikloetarako sarrera proba prestatzeko eskolak

Erdi zikloetako ikasleei ekaineko azterketa prestatzeko aukera emango diete

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

Zuazola-Larraña institutuak goi zikloetarako sarrera proba egiteko prestakuntza eskolak emango ditu 2010-11 ikasturtean. Astean bi egunean hiru orduko eskolak emango dituzte. Interesatuek irailean eman beharko dute izena Zuazola-Larraña institutuan (943 78 21 50).

Batxilergoa edo DBH edo beste baliokideren bat ez dutenek eta goi zikloa egin nahi dutenek sarrera proba egin behar dute. Azterketa hori 2011ko ekainean egingo dute. Probaren helburuak dira ikaslearen heldutasuna egiaztatzea eta goi zikloari dagokion lan esparrurako dituen gaitasunak probatzea.

**ERDI MAILATIK GOI MAILARA**

Azken urteotan Helduen Heziketa Eskolak egin ditu sarrera probarako prestaketa lanak. Aurten, baina, Zuazola-Larrañan emango dituzte ikasleen eskariei erantzunez. "Erdi zikloak gurekin egiten zituzten ikasleek Helduen Heziketa Eskolara joan behar zuten arratsaldez. Orain, ikastetxean bertan egin ahalko dute prestakuntza", esan digu Zuazola-Larrañako zuzendari orde Eduardo Sudupek.

Ikastetxearen hurrengo erronka da goi zikloak ematea.

ESANAK

**"Gure hurrengo erronka goi zikloak ikastetxean bertan ematea izango da; ea lortzen dugun"**

**Eduardo Sudupe** >Zuazola-Larrañako zuzendariordea

"Gure ikasleek goi zikloak egiten dituzte Arrasaten, Bergaran eta Aretxabaletan. Baina lanera Oñatira bueltatzen dira. Guk eskaini gura ditugu goi zikloak; batez ere, mekanikakoa. Herriko enpresak ere bat datoz gure nahiarekin. Eskaera egingo dugu, ea zorterik badaukagun", dio Sudupek.



MIREIA BIKUÑA

## Biribilguneko horma indartzeko lanak

Oñatiko saihesbidean, Azkoagainera heldu aurretik dagoen azken biribilgunean, lanak egiten dihardute. Kalegoien aldera sartzeko dagoen biribilgunean pareta indartzeko lanak egiten dihardu Aldundia. Argazkian ikusten den moduan, horma berria jarri dute, Jaumendi aldetik erortzen ziren harriei eusteko. Arrasatetik Legazpira eta Arantzazura doan errepidea Foru Aldundiarena da eta haiek dihardute lanak egiten. "Babes lanak egiten dabiltza. Leku horretan harriak eta beste erortzen dira paretatik. Errepidera irten ez daitezen, horma jarri dute, autoendako arriskurik egon ez dadin", esan digu Lourdes Idoiaga alkateak. Lanak datozen egunotan bukatuko dituzte.

**KIROLA**

## Plater tiroketa San Migel egunean

Txopekuako zelaian jokatuko dute herri mailako txapelketa, Pago Usok antolatuta

**M.B.** > OÑATI

Pago Uso elkarteak antolatutako herri mailako plater tiroketa txapelketa egingo dute etzi, San Migel egunean. 10:00etatik 17:00etara egingo dute proba Txopekuan eta 13:30etik 15:00etara etenaldia egingo dute bazkaltzeko.

Parte-hartzaileek egunean bertan eman behar dute izena. Federatu txartela erakutsi beharko dute. Izenematea egiterakoan 15 plater gorri jasoko dituzte. Gainera, tiratzaileek 28 gramoko kartutxoak erabili beharko dituzte.

Plater gehien apurtzen dituenak irabaziko du proba. Lehenengo postuan berdinketarik balego, hori hausteko saioa egingo lukete. Gainerako postuetarako berdinketak bere horretan utziko dituzte, eta opariak aukeratzeko, izena emateko ordena hartuko dute kontuan.

**SARIAK GUZTIENDAKO**

San Migeletan egiten duten plater tiroketa txapelketak sari asko banatzen dituzte. Herriko dendariek eta enpresariek emandako sariak dira. Egunotan jarri dituzte ikusgai opari guztiak plazako Kontxi Poltsak denda zegoen lokalean. Parte-hartzaile guztiek izango dute saria, eta eurek aukeratuko dute sailkapenean lortutako tokiaren arabera. Sari banaketa ekitaldia Txopekuako tiro zelaian bertan egingo dute.

**JAIAK** > APARKALEKUAK

## Jaietan lur azpiko parkingak doanekoak izango dira

Bihartik urriaren 4ra arte zabalik egongo dira kiroldegikoa eta Kalegoienekoa

**M.B.** > OÑATI

Azken urteotan egindako moduan, lur azpiko aparkalekuak doanekoak izango dira San Migel eta Errosaixo jaietan. Bihartik urriaren 4ra arte zabalik egongo dira kiroldegiko eta Kalegoieneko parkingak. Gidariek nahi beste denbora utzi ahalko dute autoa.

**BESTE AUKERA BATZUK**

Jaietan herrian dagoen jende pilaketari aurre egiteko, lur azpiko aparkalekuak doanekoak izatea erabaki zuen iaz udalbatzak.

Jaietako egun handietan kanpotik jende asko joaten da Oñatira, eta aparkatzeko arazoak egoten dira. Kontuan hartu behar da plazako aparkalekuan barrakak daudela.

Dena den, lur azpiko aparkalekuez gain, badaude beste aukera batzuk ere: Olaiturrin eta Enpresagintza fakultatean utz daitezke autoak.

> ZERBITZUAK

### Gaurtik igerilekua itxita garbiketa eta mantentze-lanak egiteko

Zubikoa kiroldegiko igerilekua itxita egongo da gaurtik urriaren 4ra arte Osakidetzak agintzen duen garbiketa egiteko. Tarte horretan putzu handia eta txikia hustu eta garbitu egingo dituzte. Bestalde, igerilekuan bertan mantentze eta berrikuntza lanak egingo dituzte. Urriaren 5ean ohiko ordutegian zabalduko dute igerilekua.

Bestalde, 8 urte arteko neska-mutikoendako igeriketa ikastaroetako zerrendak ikusgai daude. Talde bakoitzean onartu eta baztertu dituzten izenak kiroldegiko informazio-taulan daude. Haurrendako ikastaroak urriaren 13an hasiko dituzte.

> KIROLA

### Deialdia egin diete eskubaloian jokatu gura duten neska-mutikoei

Aloña Mendiko eskubaloi sailak dei egin die eskubaloian jokatu gura duten neska-mutikoei. Hain justu ere, 1999. urtean jaiotakoendako deialdia egin dute. Eskubaloiaren oinarrizko arauak eta jokaldiak erakusteko entrenamenduak egingo dituzte astero kiroldegiko kantxan: hain justu ere, eguenetan 16:30etik 18:30era. Entrenamenduak urriaren 14an hasiko dituzte.

Eskubaloiko saioetan parte hartu gura dutenek ez dute kuotarik ordaindu behar. Doaneko entrenamenduak izango dira. Informazio gehiago gura duenak 617 08 01 44 (Mikel Mantxola) telefonora dei dezake.

**Maider Etxaniz** > Gazteria teknikaria

# "Erabiltzaileak aldatuz doaz eta gaztelekuen jarduna ere bai"

**M. A.** > ESKORIATZA/ARETXABALETA

**Dagoeneko bost urte daramatza Eskoriatza eta Aretxabaletako Gazteria Saileko teknikari lanetan. Gazteak eta aisialdia uztartzeko bidean gaztelekuak jarri zituen abian 12 eta 17 urte artekoendako eta astean ikasturtea hasiko dute.**

**Dagoneko zenbat urte dituzte gaztelekuek?**

Aretxabaletakoak lau eta Eskoriatzakoak zerbait gutxiago.

**Lau urte horietan aldaketa asko egon dira?**

Bai: Aretxabaletan lokal berria daukagu, hezitzaileak, gazteak… Erabiltzaileak urtetik urtera aldatzen dira, eta, ondorioz, gaztelekuen jarduna ere bai. Eta azken ikasturteotan teknologia berriek leku handia hartu dute: Tuentiaren erabilera, film laburren sorkuntza…

**Esan gura duzu gazteen baitan dagoela gaztelekuen martxa?**

Hein handi baten, bai; gazte dinamikoekin osatutako belaunaldia egokituz gero, askoz ekintza gehiago egiten dira.

**Zer da gehien eskatzen dutena?**

Sukaldeak izugarrizko arrakasta izaten du, bertan jateko aukera eskaintzen duelako.

**Eta Aretxabaletan musika jotzeko aukera dago.**

Bai, entseguak egiteko lokala dute bertan eta hori musika taldeak sortzeko bidea da. Dagoeneko bi talde pasatu dira eta aurtengo ikasturtean beste bat sortuko dela uste dugu.

**Zelako giroa egoten da gure herrietako gaztelekuetan?**

Urtetik urtera ezberdina, gazteak aldatuz doazelako. Iaz, Aretxabaletan, oso gazte dinamikoak egon ziren eta hankapalu taldea sortu zuten. Koadrilan etorri ohi dira, baina lagun bila datozenak ere badaude.

**"Aretxabaletako entsegu lokaletik bi talde pasatu dira eta aurten beste bat sortuko dela uste dugu"**

**"Erronkak betikoak dira: balioetan hezi; gazteen parte hartzea bultzatu; euskaraz jardun…"**

**Astean hiruzpalau egunean zabaltzen dira, ezta?**

Bai, Aretxabaletakoa egunetik domekara eta Eskoriatzakoa egubakoitzetik domekara. Gero, opor eta gainerako jaiegunetan ere bai.

**Eta ekintza batzuk elkarrekin egiten dituzte bi herrietakoek.**

Bai, azken baten ikastetxean ere elkarrekin daude eta ez da aparteko ezer. Noizbehinka kanpoko gaztelekuetakoekin ere elkartzen dira.

**Badago nobedaderik hastera goazen ikasturtean?**

Aparteko nobedaderik ez. Erronkak betikoak dira: balioetan hezi; gazteen parte-hartzea bultzatu; euskaraz jardun… Hilabete bakoitzeko egitarauak webguneetan jarriko dituzte.

**Funtzionatzen dute gaztelekuek?**

Bai, gazteen aisialdi esparrua betetzen dute; prebentzio neurria dira eta parte hartu, harremanak izan eta ondo pasatzeko aukera eskaintzen diete.



Maider Etxaniz, Eskoriatzako gaztelekuaren aurrean. M.A.

**ESKORIATZA** > AISIALDIA

# Ludotekako jarduna ezagutzeko ate irekiak egingo dituzte hainbat ekintza antolatuta

Eskulanak eta jolasak izango dituzte aste osoan eta egubakoitzean gaztelu puzgarriak Luis Ezeizako kantxan

**MIRARI ALTUBE** > ESKORIATZA

Gaur, hilak 27, hasi eta egubakoitzera bitartean ludoteka ezagutzeko aukera izango dute Eskoriatzako ume guztiek. Ezagutu bakarrik ez, adinaren arabera hainbat ekintza izango dituzte, inor asper ez dadin.



Neska-mutikoak ipuin eta jolasei begira. MIRIAN BITERII

**ESKULANAK ETA JOLASAK**

Gaur, astelehena, txikienek izango dute ondo pasatzeko aukera. Hala, bada, 3 eta 5 urte artekoek maskarak egin eta aurpegia margotuko dute plazan, arratsalde guztian (17:00-19:00).

Bihar, martitzena, 6 eta 8 urte artekoek eskulanak egingo dituzte hainbat material erabilita, tartean buztina eta makarroiak. Plazan egingo dute hori ere (17:00-19:00).

Eguaztenean, hilak 29, 8 eta 10 urte artekoek jolas dinamikoak egiteko aukera izango dute: buztana kendu, zapi jolasa, puxika jolasak… Eta nagusienek, 10 eta 12 urte artekoek, *altxorraren bila* jardungo dute eguenean, hilak 30, Herriko Plaza inguruan.

Egubakoitzerako, ostera, ume guztiendako jaieguna antolatu dute ludotekako arduradunek eta gaztelu puzgarriak izango dituzte Luis Ezeizako kantxan (17:00-19:00).

**ARGIBIDEAK ESKATZEKO**

Umeen aisialdiaren gaineko argibide gehiago gura duena edo izena eman ikasturte osorako ekitaldietara joan dadila eta bertan topatuko ditu arduradunak. Hurrengo astetik aurrera ohiko ordutegia izango dute ludotekan.

**ARETXABALETA** > OSOKO BILKURA

# Arkupe kudeatzeko oinarriak eztabaidagai gaur

Ohiko osoko bilkura du udalbatzak (18:00) eta taxien tarifak onartuko dituzte

**M.A.** > ARETXABALETA

Gaur, hilak 27, ohiko osoko bilkura egingo du udalbatzak (18:00) zortzi gai eztabaidatu eta onartzeko asmoarekin.

Erabakitzeko dituzten gaien artean dago Arkupe kultura etxearen esleipenaren oinarriak. Ama Lur enpresa bizkaitarra arduratu da Arkupe-ren jardunaz azken bi urteotan, baina kontratua bukatu egingo zaio laster, eta deialdia egiteko oinarriak onartu beharko ditu udalbatzak.

Horrekin batera, Tubos lantegia egondako alderdiari dagokion bi kontu eztabaidatuko dituzte: batetik, Udalak eta Ortubos enpresak orain dela bi hilabete inguru sinatutako hitzarmena; eta bestetik, alderdi horri dagokion ingurumen egoeraren azterketa.

Eta datorren urteko taxien tarifak onartzeko asmoa ere badaukate.

> IKASTAROAK

## Urrian hasiko dituzte Arkupeko ikastaroak: pintura, bainika, eskulanak eta zeramika

Arkupe kultura etxean ematen dituzten ikastaroen ikasturtea laster hasiko da, urrian sartzearekin batera, hain zuzen. Pintura, bainika, eskulanak eta zeramika eskolak daude aukeran eta interesatuek oraindik izena eman dezakete lau horietako edozeinetan. Argibide gehiago gura duenak Arkupeko harrerara jo dezala, bertan daukate ordutegien berri; baita izenemate orriak ere.

Pintura ikastaroari dagokionez, helduendako antolatzen dutenaz gain, umeendakoa ere badago. Ainhoa Cabero aretxabaletarra da haien arduraduna.



Joseba Tapiaren *Eta tira eta tunba* diskoaren azala. GOIENKARIA

**ELGETA** > KULTURA

# Aurpegi ezagunak uda osteko egitarauan

Joseba Tapia, Petti, Anthony Blake eta Yllanako aktoreak Elgetako antzokian izango dira urrian

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

Espaloia Kafe Antzokiak gertu du abendura arteko kultura egitaraua. Lehenengoa antzokian emanaldia egiten Joseba Tapia izango da. Datorren domekan, urriaren 3an, *Eta tira eta tunba* diskoa aurkeztuko du. Karlisten eta liberalen bertsoak musikatu ditu oraingoan trikitilariak. Haize tresnaz osaturiko taldea erabili du bertso horiek musikatzeko eta lau urte izanik lasartearrak ez duela lanik kaleratzen, ikusmina piztu du *Eta tira eta tunba* diskoak.

**BERRI TXARRAK, ABENDUAN**

Hiruhileko honetan musika izango da protagonista handia Espaloian. Urriaren 22an hasi eta bi astetik behin Danbaka musika lehiaketaren emanaldiak egingo dira Espaloian. Aurretik, urriaren 9an, blues doinuak izango dira kafe antzokian: Los Reyes del KO taldeak eta Pettik emanaldia egingo dute, 22:30ean hasita. Eta urtea amaitu aurretik Berri Txarrak taldearen bisita izango dugu Elgetan; abenduaren 10erako lotu dute emanaldia Espaloiarekin.

**BLAKE ETA YLLANA**

Anthony Blake mentalista ospetsuak gustuko du Elgetara etortzea eta aurtengoa bere bosgarren bisita izango da. Aurreratu digu hildakoekin lotura duen ikuskizuna ekarriko duela Espaloira. Orain arteko emanaldietan bete egin du aretoa. Blake urriaren 23an eta 24an izango da Elgetan eta bi emanaldi egingo ditu.

Yllana antzerki taldearen proposamenek ere arrakasta polita izaten dute Espaloian. Urriaren 15ean *Zoo* izeneko ikuskizuna ekarriko dute eta abenduaren 12an, *666* antzezlana.

Ez ahaztu, halaber, hasiak direla hileko azken domeketan *Herrixa dantzan*-eko saioak.

**LEINTZ GATZAGA** > LANAK

# Urriaren 4an emango dio hasiera Gurelek ludoteka eta liburutegiaren ikasturteari

Zapatuan herriko inguruak txukunduko dituzte auzolanean: bazterrak garbitu, horma batzuk margotu eta loreak landatu

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Gurel guraso elkartea hasi da lanean. Ikasturteko lehenengo batzarra egin dute egunotan batzordeko kideek eta udazkeneko lehen ekitaldiak antolatu dituzte.

Hala, bada, Garro jauregian dauden ludoteka eta liburutegia urriaren 4an, astelehena, zabalduko dituzte. Iaz egondako begiraleek –Garazi eta Maitane– izango dute bertaratuko diren umeen ardura, eta hainbat ekintza antolatuko dituzte, inor asper ez dadin. Iazko ordutegia (17:00-19:00) izango duela ludotekak jakinarazi dute Gureleko kideek, "behintzat, abendura bitartean".

**AUZOLANA ETA BAZKARIA**

Aste bukaerako ekitaldiak antolatzen ere hasi da Gurel. Zapatuan, urriak 2, herriko inguruak txukuntzeko asmoa daukate auzolanean: "Bazterrak garbitu, horma batzuk margotu eta lorontzietako loreak aldatuko ditugu. Eta gero denok Toki Eder elkartean bazkalduko dugu", diote Gureleko arduradunek.

Bestalde, urriaren 9an eta 10ean kometen eguna egingo dute Garaion eta hara joateko asmoa daukate Gatzagako gurasoek.

**ARAMAIO** > KULTURA

# Argazki lehiaketa deitu du Txirritola euskara elkarteak

Txirritolak 600 euro banatuko ditu saritan; zuri-beltzeko zein koloretako argazkiak jasoko dituzte urriaren 30era arte

E.M. > ARAMAIO

Udako postalen lehiaketa amaitu ondoren, argazki lehiaketa deitu du Txirritolak. Zuri-beltzeko zein koloretako argazkiak bidal daitezke eta, gehienez, hiru argazki aurkeztu ahal izango ditu lehiakide bakoitzak. Aramaiorekin zerikusia duten argazkiak izan behar dira eta urtaro bakoitzari dagokion argazki onenak 100 euro jasoko ditu. Irabazle nagusiak, berriz, 200 euro eskuratuko ditu. Lanak entregatzeko epea urriaren 30ean bukatuko da. Argibide gehiago, kultura etxean.

**ONDASUN HIGIEZINEN ZERGA**

Bestalde, Udalak aditera eman duenez, ezaugarri bereziko eta hiri eta landa-lur ondasun higiezinen gaineko zerga ordaintzeko borondatezko epea azaroaren 20ra arte izango da zabalik. Helbideratuta ez dauden erreziboen kasuan, Udalak Vital Kutxan edo Euskadiko Kutxan dituen kontuetan egin daiteke ordainketa. Ohikoa denez, borondatezko epea amaitu ondoren, ordaindu gabeko kuotak %5eko gainkarguarekin kobratuko dituztela aditzera eman du Udalak.



Urtaro bakoitzeko argazki onena sarituko dute. CESAR AZKARATE

**ANTZUOLA** > ERRETIRATUAK

# Gaur hasiko dute kontsumo astea erretiratuen elkartean

Egubakoitzean Donostiara irteera egingo dute, Aldundira

ARANTZAZU EZKIBEL > ANTZUOLA

Gaur hasi eta aste osoan zehar kontsumo astea egingo dute herriko erretiratuek. Erretiratuen elkarteak antolatutako jardunaldiak dira, eta, ondorioz, herriko erretiratu guztiak gonbidatu zituzten egingo diren hitzaldietan izena ematera.

Gehienez 25 pertsonaz osatutako taldeak egin dituzte.

**MEDIKAZIOA BERBAGAI**

Lehenengo hitzaldia gaur izango da, 16:30ean, elkartean bertan. *Medikazioa eta auto-medikazioa* delako hitzaldia egingo du Marisa Bouzas medikuak. Esan daiteke gaurko hitzaldian teoria landuko dutela erretiratuek. Eta bihar, hilak 28, teorian ikasitakoa praktikan jarriko dute; izan ere, hitzaldiaren izenburu bera duen tailerra egingo dute Begoña Olabarrieta irakaslearekin.

**EGUAZTENEAN, ELIKAGAIAK**

Eguaztenean elikagaien segurtasunaren inguruan jardungo dute erretiratuek; eta hurrengo egunean, eguena, alde praktikoa landuko dute. Begoña Olabarrieta irakaslearekin tailerra egingo dute, 16:30ean, Torresoroan.

**EGUBAKOITZEAN DONOSTIARA**

Kontsumo astea amaitzeko, egubakoitzean Donostiara irteera egingo dute; hain zuzen, Aldundiko Kontsumo Gelara. Modu horretan, erretiratuek astean zehar ikasitakoa praktikan ikusteko aukera izango dute. Irteera izango da 10:00etan.

Erretiratuen hurrengo ekitaldia urriaren 12an izango da: merienda eta kina.



> FUTBOLA
Bergarak eta Aloñak irabazi, Mondrak berdindu eta UDAk galdu > 22-23



> ESKUBALOIA
Aloña Mendik irabazi egin zuen San Migeletako eskubaloi txapelketa > 24



> ZIKLISMOA
Espainiako Itzuliko porrako sariak banatu zituzten Monten > 25



Ibaizabal taldeko Moreno jokalaria baloia pasatzen taldekide bati Irlandesasen kontrako partiduan. JOSETXO ARANTZABAL



Argazki oinaaaaaaaaaaa. JOSETXO ARANTZABAL

**SASKIBALOIA** > HIRUKO TXAPELKETA

# EHUk jokatuko du Euskal Kopako finala Hondarribia-Irunen kontra

IBAIZABAL
**54-73**
IRLANDESAS

IRLANDESAS
**49-61**
EHU

EHU
**61-55**
IBAIZABAL

## FINALA, AZAROAN

Donostiako taldeak bi partidu irabazi zituen eta azaroaren 17ko finala jokatuko du

**MIREIA BIKUÑA** > ESKORIATZA

Gipuzkoako bi taldek jokatuko dute saskibaloiko Euskal Kopako finala azaroaren 17an. Hain zuzen ere, EHU eta Hondarribia-Irun taldeak lehiatuko dira kopa irabazteko asmoz. Hondarribiko taldea zuzenean saikatu zen finalerako, eta, beste txartelaren bila, hiruko txapelketa egin dute aste bukaeran Eskoriatzan. Donostiarrek bi partiduak irabazi zituzten eta final handia jokatzeko txartela eskuratu zuten.

**EHU-K BIAK IRABAZI ZITUEN**

Leioako Irlandesas, Galdakaoko Ibaizabal eta Donostiako EHU taldeek hiruko txapelketa jokatu zuten egubakoitzetik atzora arte Intxaurtxuetan. "Hondarribiko taldearekin batera Euskal Herriko talde indartsuenak dira. Aurrekontu handiena dutenak", esan zigun Eskoriatza Kirol Elkarteko kide Manolo Muñozek.

Aurrekontu horrekin Irlandesas taldeak atzerriko bi jokalari ditu: Ivanova eta Svarova. Biek ala biek eta Ruiz jokalariak maila ona erakutsi zuten egubakoitzean Ibaizabalen kontra jokatutako partiduan. Erasoan eta taulapean lan ikaragarria egin zuten. Leioako taldeak arazo barik irabazi zuen partidua.

Zapatuko norgehiagoka finala zen leioarrendako. EHUren kontra irabaziz gero, eurek jokatuko zuten Hondarribiaren kontrako finala. Baina donostiarrek talde sendoa dutela erakutsi zuten. Arantza Novo antolatzaileak bikain gidatu zuen taldea eta hasieratik aurreratu ziren. 24-33 ziren aurretik donostiarrak atsedenean. Baina hirugarren tartean erlaxatu egin ziren eta Irlandesas taldea lau puntura jarri zen: 32-36. Une hartan, Novok hiruko bi jaurtiketa egin zituen jarraian, eta gauzak bere lekuan jarri. Handik aurrera, leioarrak nahi eta ezin ibili ziren. Laugarren tartea hasi orduko jakin bazekiten azaroko final handia jokatzeko ez zutela aukerarik izango.

Hori horrela, atzoko partidua erabakigarria zen bigarren finalista ezagutzeko. EHU zen hautagai nagusia eta ez zuen hutsik egin. Baina Ibaizabalek asko estutu zuen norgehiagoka. Lehen laurdenean bizkaitarrak zeuden aurretik 28-32. Atsedenaren ondoren, hirugarren tartean, buelta eman zioten partiduari donostiarrek (47-44). Laugarren tartean eutsi egin zioten aldeari. Haiek jokatuko dute finala.

ESANAK

**"Hondarribiarekin batera Euskal Herriko hiru talde indartsuenak dira; aurrekontu handiena dutenak dira"**

**Manolo Muñoz** > Eskoriatza KE

**OHOREZKO ERREGIONALA** > ALOÑA-AURRERA

# Partidu lehiatsuan merezita irabazi zuen Aloña Mendik

## Iker Agirrek eta Xabier Agirrek sartu zituzten golak bigarren zatian

## Etxeko lehen garaipenarekin Aloña bosgarren dago sailkapenean



Aloñako jokalari Iñigo Zubia baloia kontrolatu guran, Ondarroako Aurrera taldeko bi jokalariren

ALOÑA MENDI
**2-0**
AURRERA

**Aloña Mendi** > Oier, Gorka, Iker Agirre, Idigoras (Urkia, 83. min.), Mikel, Unai (Xabi Agirre, 77.min.), Iñigo, Zubia, Mendoza, Julen Palacios (Andoitz, 90.min.), eta Iker Olalde.

**Aurrera** > Elkoro, Ekaina, Mikel Badiola, xabi, Olabe, Unai, Josu (Asier, 82.min.), Enrike (Jesus, 86.min.), Koldo (Ibai, 63.min.), Andoni (Antxon, 56.min.), eta Mikel Aramaio..

**Epailea** > Rezola jaunak zuzendu zuen norgehiagoka, Bere eta Irigarai marrazainen laguntzarekin.

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

Merezita irabazi zuen Aloñak atzo Ondarroako Aurrera taldearen kontra. Pablo Diezen taldeak bigarren zatian sartu zituen golak: hain justu ere, 55. eta 93. minutuetan. Hori horrela, denboraldiko lehen puntuak batu zituzten oñatiarrek etxean, Hernaniren kontra galdu ostean.

Hori bai, garaipena lortu arren, asko sufritu eta borrokatu behar izan zuten.

**BALOI LUZEAK**

Partidua, oro har, nahiko nahasia izan zen joko aldetik. Aurrerak nola jokatzen duen jakinda, Aloñaren asmoa zen pase motzen bidez hutsuneak topatu eta erasoa antolatzea. Baina lehen zatian ezin izan zuten entrenatzaileak agindutakoa egin. Behin eta berriz, eskuineko eta ezkerreko hegaletik baloi luzeak bidali zituzten, aurrelariak topatu guran. Diez oso haserre zegoen eserlekuan.

Joko garbirik ez egin arren, gol aukerak izan zituen Aloñak: 29. minutuan Julen Palaciosek bakarrik errematatu zuen korner erdiraketa bigarren zutoinean, baina atezainak gelditu egin zuen baloia. Roberto Idigorasek ere aukera izan zuen lehena egiteko.

Lehen zatian Aurrerak ondo defendatzen duela erakutsi zuen, talde indartsua dela eta lehen ukituan jokaldi onak egiten badakiela, baina ez zuten jaurtiketa bat bera egin Oier Zabaletaren atera atsedenaren aurretik.

Lehen zatia gogorra eta lehiatsua izan zen, eta bigarrena are gehiago. Jokalariek behin eta berriz protestatu zituzten epaileak hartutako erabakiak. Penaltiak eskatu zituzten bi areatan baloiak eskuarekin ukitzeagatik.

**BIGARRENEAN, GOLAK**

Bigarren zatiaren hasieran asko estutu zuen Aurrerak, baina Aloñak sartu zuen lehen gola: 55. minutan Zubiak erdiratutako kornerra ez zuen defentsak ondo urrundu eta area barruan boleaz errematatu zuen Iker Agirrek. Markagailua kontra ikusita, bi aldaketa egin zituen Aurrerako entrenatzaileak: zelai erdiko jokalaria bata eta aurrelaria bestea. Helburua garbi adierazi zien: berdinketa lortzea.

Eta aldaketen ondoren, lehen aukera Antton aurrelariak eduki zuen. Lehen baloia gurutzatuegia bidali zuen Aloñako atezainaren aurrean zegoela.

Aldaketek on egin zioten Ondarroako taldeari. Zelai erdiko jokoa finkatu zuten eta eurek menderatu zuten norgehiagoka.

Hori horrela, Aloña atzeko lerroa sendotu eta aldeari eusten ahalegindu zen. Orduan, bi taldeek euren sistema aldatu zuten: Aloñak ondo defendatuz kontraerasoan irten gura zuen eta Aurrerak erasoa ondo antolatu berdinketa egiteko.

Baina bizkaitarrek apenas egin zituzten gol aukera garbiak. Berdinketan baino gehiago, epaileak hartutako erabakiak protestatzen pasa zuten denbora. Gainera, zelai erdian baloi askotxo galdu zituzten. Horietako bat aprobetxatu zuten oñatiarrek bigarren gola sartu eta partidua erabakitzeko. 93. minutuan, kontraeraso baten, Josu Juaristi bakarrik sartu zen arean, eta ate-

**OHOREZKO ERREGIONALA** > BERGARA-TOLOSA

# Lasaitasuna ematen duten puntuak batu zituen Bergarak

**M.B.** > BERGARA

Hirugarren jardunaldian batu zituen Bergarak denboraldiko lehen hiru puntuak, Tolosari 2-1 irabazita. Beharrezko puntuak, taldeari lasaitasuna emango dioten puntuak lortu zituzten mahoneroek zapatuan.



Mikel Ilzarbe baloia oinetan duela. JOSETXO ARANTZABAL

**TOLOSA, BAT GUTXIAGOREKIN**

Lehenengo zatia oso parekatua izan zen, epaileak 35. minutuan Tolosako atzeko lerroko jokalari bat egotzi zuen arte. Bergarak egoera aprobetxatu zuen, eta 44. minutuan lehen gola sartu zuen Martinek. Gol psikologiko horietakoa egin zuten etxekoek.

Bigarrenean, Maiztegiren mutilen menderatu egin zuten partidua eta aldea handitu zuten Ilzarbek penaltiz egindako golari esker. Abantailarekin eta lasaitasunez, mahoneroek joko ona egin zuten. Baina 85. minutuan Tolosak gola sartu zuen eta orduan urduri jarri ziren etxekoak. Azkeneko minutuak oso luzeak izan ziren. "Urduri bukatu dugu, baina irabaztea ezinbestekoa zen taldea lasaitzeko. Gustura gaude", esan zigun bukaeran entrenatzaileak.



JOSETXO ARANTZABAL

## 94. minutuan berdindu zuen Mondrak

Ozta-ozta berdindu zuen Mondrak Anaitasunaren kontra: 94. minutuan sartu zuen gola Markel Crespok. Pozik ospatu zuten berdinketa etxekoek, jokalari bat gutxiagorekin jokatu –Loiti egotzi zuen epaileak– eta joko txarra egin zutela kontuan hartuta. Azkoitiarrek, gainera, lau gol sartzeko aukera garbi izan zituzten.



aurrean. JOSETXO ARANTZABAL

zaina gainditu ondoren Xabi Arregiri eman zion baloia gola sar zezan. Orduan heldu zen lasaitasuna Azkoagainera.

Pozik eta gustura ospatu zuten jokalariek etxeko lehen garaipena.

Atzoko puntuekin oñatiarrak sailkapeneko goiko tokietan kokatu dira: Aloña Mendi bosgarren tokian dago sei punturekin, hiru jardunaldiren ostean.

ESANAK

"Hernaniren kontra galdu ondoren garrantzitsua zen gaurko partidua irabaztea lasai ibiltzeko"

**Iñigo Arregi** > Aloñako jokalaria

"Aurrera fisikoki talde indartsua da eta zaila da euren kontra jokatzea; horregatik, oso inportanteak dira puntuak"

**Pablo Diez** > Entrenatzailea

**OHOREZKO ERREGION.**

# Jokalari bat gutxiagoz galdu zuen UDAK

**M.B.** > ARETXABALETA

Bigarren astez hamar jokalariekin bukatu zuen Aretxabaletak ohorezko erregional mailako partidua. Barrutiaren mutilek 1-0 galdu zuten Oiartzunen kontra. "Partidu ona jokatu dugu, baina epaileak oztopo asko jarri dizkigu. Oinatzi erakutsi dion bigarren txartel horia lotsagarria izan da", esan zigun Rafa Barrutiak.

Oiartzunek erakutsi zuen talde beteranoa dela. UDAren jokoa geratzeko falta estrategiko asko egin zituen eta horrek asko moteldu zuen jokoa. UDAk berdintzeko aukerak izan zituen, baina Oiartzunek 20. minutuan egin zuen lehiako gol bakarra.

**NAZIONAL MAILA**

# Gazte mailako taldea puntu barik

**M.B.** > ARETXABALETA

Gazte mailako liga nazionalean diharduen Aretxabaletak galdu egin zuen zapatuan Basauriko Indartsuren kontra, 1-2, Ibarran. Puntuak inportanteak ziren bi taldeendako sailkapenean gora egiteko. Hala, partidu parekatua jokatu zuten, baina bizkaitarren bigarren golak erabaki zuen norgehiagoka.

**PUNTU BAKARRA**

Zapatuko garaipenarekin denboraldiko lehen puntuak batu zituen Indartsuk eta sailkapenean aretxabaletarren aurretik ipini da. UDAk puntu bakarra du oraingoz eta sailkapeneko 13. tokian dago.

**PREFERENTE MAILA**

# Antzuolak derbia galdu eta Mondrak berdindu

**M.B.** > ARETXABALETA

Preferente mailako lehen derbia jokatu zuten Aretxabaleta B taldeak eta Antzuolak Ibarra futbol zelaian. Aretxabaletarrak izan ziren nagusi hasieratik eta eurek menderatu zuten partidua 3-1. Antzuolak partidua irabazteko aukera gutxi izan zituen. Derbiaren ostean, UDA zazpigarrena da sailkapenean lau punturekin eta Antzuola 14.a bi punturekin

Bestalde, maila berean jokatzen duen Mondra B taldeak berdinketa ekarri zuen Andoainera egindako bisitatik. Bina berdindu zuen Amaikak Bat taldearen kontra. Puntu horrek aukera ematen die arrasatearrei sailkapeneko goiko lekuetan jarraitzeko: hain justu ere, bosgarren tokian daude bost punturekin.

Abantailaz betetako kluba!
Goiena kluba
IRAILEKO ZOZKETA
Telefonoa: 943 25 05 05
e-posta: kluba@goiena.com
Kuota: 45 euro

LIIBURU SORTA BAT
Bidali KLUBA LIBURUAK [Bazkidearen zenbakia] 5195 zkra.
PAMIELA argitaletxea

ARRIKRUTZERAKO BI SARRERA
Bidali KLUBA SARRERAK [Bazkidearen zenbakia] 5195 zkra.
ARRIKRUTZ oñatiko kobak

ESAIT-EKO MAILLOTA
Bidali KLUBA MAILLOTA [Bazkidearen zenbakia] 5195 zkra.
esait

UMEENTZAKO PUZZLEA
Bidali KLUBA PUZZLEA [Bazkidearen zenbakia] 5195 zkra.
Ikastolen Elkartea

SARI NAGUSIA
UZTAILA-URRIA
PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA
WII SPORTS RESORT PACK TXURIA
Ukabi informatika
Sistemen salmenta eta mantenua
TPV eta enpresak kudeatzeko aplikazioak
Webguneen diseinua.
Domingo Irala z/g (Ariznoa aurrean)
BERGARA Tel.: 943 15 01 01

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: *kluba@goiena.com*

**ESKUBALOIA** > LAGUNARTEKOA

# Aloña Mendik irabazi du etxean jokatutako San Migel saria

Nafarroako Zangozaren aurka 26-20 nagusitu ziren etxeko jokalariak zapatuan Zubikoan

Partidu amaieran sariak banatu zituzten; jokalari onenarena Francisco Benitok irabazi zuen



Partidu amaieran, bi taldeetako jokalariak garaikurrekin. A.E.

**ARANTZAZU EZKIBEL** > OÑATI

San Migel eskubaloi txapelketa jokatu zuten zapatuan Izarraitz taberna-Aloña Mendi eta Cantolagua Sangüesa taldeek. Lehia polita izan zen, baina partiduak ez zuen lehiakortasunik izan; hasieratik, etxeko taldea nagusi izan zen. Aloña Mendik 26-20 irabazi zuen partidua.

Bi taldeen arteko aldean eragina izan zuen jokalari kopuruak. Nafarroako taldea jokalari gutxirekin etorri zen Oñatira, eta, gainera, jokalari gazteek ezin izan zuten etorri azkeneko momentuko arazoengatik. Hala, taldeko entrenatzailea jokalari ibili zen.

**DEFENTSAN ONDO ETXEKOAK**

Atsedenean 12-8 aurretik ziren etxeko jokalariak. Joko ona egin zuten Zubikoan. Batez ere defentsan oinarritu zuten euren lana. Atzean gogor eginda kontraerasoan ateratzeko aukerak izan zituzten oñatiarrek.

Aitor Gartzia entrenatzailearen ustez, euren lana "korrika egin eta pase onak" egitea izan zen. Gustura zegoen Gartzia taldeak egindako lanarekin. Liga datorren astean hasiko dute, baina, hain justu, atseden izango du lehenengo jardunaldian Aloña Mendik.

**BENITO, JOKALARI ONENA**

Aloñako Francisco Benitok jokalari onenaren saria jaso zuen –lagunartekoa zelako jokatu zuen–. 25 urte inguru darama eskubaloian Benitok; azkeneko urteetan entrenatzaile lanetan.

**Aitor Gartzia 'Burcio'** > Aloña Mendiko entrenatzailea

## "Partiduz partidu joatea izango da taldearen helburua"

**A.E.** > OÑATI

**Denboraldi honetan entrenatzaile berria izango du Izarraitz taberna-Aloña Mendik. Harekin izan gara, ligari begira dituzten asmoez berbetan.**

**Eskubaloian ibilitakoa zara, baina lehenengo aldiz hartuko duzu taldearen ardura.**

Aurten hartu dut taldearen ardura. Eskubaloian ibilitakoa naiz, baina azkeneko urteak Gasteizen egin ditut, ikasketak direla-eta. Aurten proposatu didate eta jokalariak ezagutzen ditudanez gustura hartu dut erronka. Gauzak ondo egiteko gogoz nago.

**Zein izango da taldearen helburua?**

Ez dago presiorik. Iaz taldeak maila galdu zuen eta aurten partiduz partidu joatea izango da gure asmoa.

**Nolako taldea duzu ligari begira?**

Batez ere, aipatzekoa da jokalariek duten gogoa. Bestalde, lagun koadrila bat gara eta bloke ona dauka; baina batek huts egiten badu taldea behera joateko arriskua dago.



A.E.



JOSETXO ARANTZABAL

## Gallastegi eta Lopez Angiozarren onenak

Angiozar Hiria pilota txapelketak baditu irabazleak: Mikel Gallastegi eta Satur Lopez. Atzo jokatu zituzten finalak eta baita hirugarren eta laugarren postuak ere. Adierazi digute, beste urte batzuetan ez bezala, atzo jokalari guztiak agertu zirela partiduetara; baten bat, baina, *gaupasa* eginda. Giro onean jokatu dute txapelketa.

**ERRUGBIA** > EUSKADIKO TXAPELKETA

# Arrasateko mutilek galdu egin dute ligako lehenengo norgehiagoka Irunen aurka

Igor Isasi entrenatzailea ez dago batere gustura Irunen egindako lanarekin: Arrasatek 41-12 galdu zuen

**A.E.** > ARRASATE

Arrasate Errugbi taldeak ez du batere ondo hasi denboraldi berria. Zapatuan Irunen aurka jokatutako lehia 41-12 galdu zuten Igor Isasiren mutilek. Gainera, ez zuten joko onik erakutsi; batez ere, lehenengo zatian ibili ziren galduta arrasatearrak. Badute, hortaz, zer hobetu.

Partidua hasi orduko hiru entsegu jarraian egin zion Irunek Arrasateri. Isasiren esanetan, "erdi lo" atera ziren, eta ondorioz ezin izan zuten ezer egin Irunen kontraerasoa gelditzeko.

**AZKEN 20 MINUTUAK ONAK**

Arrasatearrek bigarren zatian beste aurpegi bat erakutsi zuten; batez ere, azkeneko 20 minutuetan. "Partiduari buelta eman diogu, baina berandu izan da", esan zuen partidu amaieran Isasi entrenatzaileak.

Isasiren ustez, plakaketa hobea falta izan zitzaion taldeari zapatuan. Bestalde, azkeneko 20 minututako jarrera gustatu egin zitzaion eta jarrera hori gurako luke hurrengo partiduetan ere.

**DATORREN DOMEKAN, ETXEAN**

Datorren astean domekan jokatuko dute arrasatearrek, Zarautzen aurka, Mojategin. "Ez dut ezagutzen nolako taldea den, baina aste bukaeran 15-15 berdindu dute Elorriorekin. Hortaz, indartsu dagoen taldea dela pentsa daiteke", azaldu du Isasik Zarautz nolako taldea den galdetuta.

Ligari begira, etxeko partiduak irabaztea ezinbestekoa izango dela dio Isasik: "Etxeko partiduek izan behar dute gakoa; etxetik kanpo ere partiduren bat irabazten badugu hobeto, baina etxekoetan ezin da hutsik egin". Durangorekin batera entrenatzen da Arrasate; hala, handik etorriko den laguntzaren zain dago Isasi taldea osatzeko.


Parte-hartzaile gaztetxoak Javi Baltzategi eta Andoni Gartziarekin. GOIENKARIA

**GOLF** > TXAPELKETA

# Montse Lizarralde eta Josetxo de Frutos izan dira golfean onenak

Gero eta gaztetxo gehiagok parte hartzen dute golf txapelketan; bi mailatan lehiatu dira: 6-8 urte bitartekoak eta 8tik gorakoak

**ARANTZAZU EZKIBEL** >OÑATI

Beste behin ere parte-hartze handia izan du Oñatiko San Migel golf txapelketak. Joan den hilaren 19an jokatu zuten txapelketa Oñatiko Irelore golf eskolan.

Aurtengoa zortzigarren txapelketa izan da. Nagusien mailan Montse Lizarralde oñatiarra izan da irabazlea emakumezkoetan, eta gizonezkoetan, Getxoko Josetxo de Frutos.

**NAGUSIEN SAILKAPENA**

Emakumezkoetan, oñatiarraren atzetik geratu zen Bergarako Isabel Martinez de San Vicente eta hirugarren tokian sailkatu zen Irene Azkarate, hura ere bergararra.

Gizonezkoetan, Getxoko de Frutosen atzetik Arrasateko Javier Isturiz sailkatu zen eta hirugarren tokian Oñatiko Roberto Irizar. Aipatutako guztiek izan zuten garaikurra.

**GAZTETXOEN SAILKAPENA**

Urtetik urtera gero eta gaztetxo gehiagok parte hartzen dute golf txapelketan; aurten, 15 neska-mutiko lehiatu dira.

6 eta 8 urte bitartekoen artean Iker Etxaniz bergararra izan zen lehenengoa, Iker Jimenez oñatiarra bigarrena eta Unai Redondo arrasatearra hirugarrena. 8 urtetik gorakoetan lehenengo hiru sailkatuak izan ziren: Bergarako Jon Maiztegi, Oñatiko Ander Gartzia eta Oñatiko Pablo Zubia.

**ESKUBALOIA** > OHOREZKO LIGA

# Bera Bera eta Marina Park taldeak Zubikoan

ETEOren 50. urteurrenaren harira antolatutako eskubaloi partidua izango da, gaur, 19:00etan, Oñatin

**A.E.** > OÑATI

Goi mailako eskubaloia ikusteko aukera egongo da gaur Oñatiko kiroldegian. Donostiako Bera Bera taldea eta Santanderko Marina Park ibiliko dira nor baino nor gehiago.

Lagunarteko partidua izango da, ETEOren 50. urteurrenaren harira antolatutako partidua, hain zuzen. Aloña Mendi eskubaloi elkartea ibili da laguntzaile lanetan.

**OHOREZKO LIGAKO TALDEAK**

Bi taldeek emakumezkoen ohorezko ligan jokatzen dute: ABF ligan. Hain zuzen, ligan duten atsedenaldia aprobetxatuko dute Oñatira etorri eta lagunartekoa jokatzeko.

Donostiako Bera Berak Castroren aurka jokatuko du ligako hurrengo partidua, urriaren 2an. Hala, Reyes Carrere eta Tati Garmendiaren neskek euren onena emango dute Oñatin, ligara gorputzaldi onenean iristeko. Orain arte bi partidu jokatu dituzte: bat irabazi egin dute eta bestea galdu.

Bestalde, Marina Parkek Monovar Urbacasasen aurka jokatuko du ligako partiduan.

**GAZTE MAILAKO PARTIDUA**

Ohorezko ligako partiduaren aurretik gazte mailako neskek jokatuko dute partidua. Bera Berak eta Aloña Mendik neurtuko dituzte indarrak. 17:00etan hasiko da gazte mailakoen partidua. Etxeko jokalariek gustura hartuko dute Bera Beraren aurkako lehia.


JOSETXO ARANTZABAL

## 'Ballan 3' Arrasateko taldeak eroan du Vueltako porrako saria

Banatu dituzte Espainiako Vueltako porrako sariak Monte tabernan. 701 apusturen artean irabazlea Arrasateko *Ballan 3* izan da: 8.412 euro irabazi ditu. Bigarrena *Pinotxo* izan da eta 5.257,5 euro poltsikoratu ditu. Hirugarren saridunak, *Jesus Mari Ortiz*-ek, 2.628,7 euro eroan ditu. Ondorengoek, hamargarren sailkaturaino, 525,75 euro irabazi dituzte. Porra antolatzen duen Xantini peñak aukera aprobetxatu zuen Arrasateko txirrindulari Ivan Velasco omentzeko Tourrean egin duen lanagatik.


JOSETXO ARANTZABAL

## Patxi Barrenak irabazi du bolo txapelketa

Kurtze-Baltz elkarteak antolatuta, bolo txapelketa jokatu zuten atzo San Martinen. 60 lagunetik gora parte hartu zuten txapelketan eta onena Patxi Barrena izan zen, Umerez tabernakoa. Lehenengo lau sailkatuek sei txirlo bota zituzten; hala, euren artean jokatu zuten berdinketa hausteko. Lauren artean onena Barrena izan zen.

# Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK

## AKUPUNTURA

**INTEGU**
Arrasate / Uarkape 18, behea, ezk / 943 77 13 34

**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

**LORENZO M. JOOSTEN**
Arrasate / Arrasate Pasealekua 29, Ezk behea / 943 79 29 13

## ALBAITARIAK

**ETXEBERRIA JULIO (DEBAGOIENEKO ALBAITARI OFIZIALA)**
Bergara / 609 54 16 13

## ANALISI KLINIKOAK

**LABORRA ISABEL**
Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

## DENTISTAK

**ANE LASAGABASTER**
Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

**AGIRRE HORTZ KLINIKA**
Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

**ARANBURU HORTZ KLINIKA**
Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

**ARRASATE HORTZ KLINIKA**
Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

**ARREGI HORTZ KLINIKA**
Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

**ASTIAZARAN SOLOZABAL**
Bergara / Iparragirre 1, behea / 943 76 27 95

**BENGOA SAN MIGUEL ANGEL**
Aretxabaleta / Durana 14, 1. / 943 79 05 57

**BERGARA HORTZ KLINIKA**
Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

**CAVIGLIA SILVANA**
Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

**GOROSABEL J. ALBERTO**
Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

**IRIARTE IRURETA ANE MAITE**
Arrasate / Iturriotz 7 – 1 / 943 79 69 45

**IRIARTE IDOIA**
Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65
Elgeta / Torrealdea 2 behea ezk. / 943 76 80 06

**LOPEZ DE GOIKOETXEA**
Arrasate / Alfontso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74

**MAZMELA BOLINAGA ENRIKE**
Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

**SAINZ MALKORRA ANA**
Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

## DERMATOLOGIA

**TAMAYO CONCEPCION**
Oñati / Atzeko kalea 6 behea / 620 12 48 46 / 943 71 61 82

## ENTZUMEN ZENTROAK

**INSTITUTO OPTICO – BIOACUSTICA**
Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

## ERREUMATOLOGIA

**GORASARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA**

**TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA**
Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

## HOMEOPATIA

**AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)**
Arrasate / Nafarroa etorbidea 11 / 943 08 11 00 / 695 78 19 21

## KIROPRAKTIKA ZENTROA

**LARRAÑAGA ANDREA**
Arrasate / Erdiko kalea 22, 3. eskuma / 943 79 92 83

## LOGOPEDIA

**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## MASAJISTAK

**AZPEITIA IRUNE**
Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

## OPTIKAK

**BEGIONDO OPTIKA**
Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

**INSTITUTO OPTICO**
Arrasate / Kale Barria 32 / 943 79 71 68

## ORTOPEDIA

**ORTO LAGUN**
Arrasate / Kontzezino 2 / 943 79 89 34

## OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

**UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA (ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)**
Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

## OSTEOPATIA

**BENGOA NEREA**
Arrasate / Erdiko kale 22, 3 ezk / 659 58 66 89

**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

## PODOLOGOAK

**ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA**
Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

**IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA**
Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

**OINEZ PODOLOGIA KLINIKA**
Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

## PSIKIATRA

**GALLASTEGI PABLO**
Bergara / San Martin plaza 2-1. ezk. / 943 76 26 64

## PSIKOLOGOAK

**GARMENDIA LANDER**
Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86

**NUÑEZ TXOMIN**
Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## YOGA

**AREDHANA YOGA ETA GESTALT PSIKOTERAPIA ZENTROA**
Aretxabaleta / Santa Kurtz 24 / 616 96 57 95.

**SAMADHI YOGA**
Bergara / Masterreka 13, behea / 943 76 11 38 / 639 23 57 53

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu **943 25 05 05** zenbakira.

**Mikel Galdos** > Golf jokalari profesionala

# "Telebistan azaltzen diren horiekin jokatzea sekulako esperientzia izan da"

XABIER URTZELAI > ARETXEBALETA

**Gipuzkoako txapelketa irabazi izanagatik izan da Mikel Galdos aretxabaletarra gurean albiste, baina onartu digu Frantziatik bueltan parean tokatu zitzaiolako hartu zuela esku txapelketan. Benetako lorpena, aurten, ekainean egin zuen, Frantziako Open-ean parte hartzeko sailkatu zen-eta, Europako handienekin batera.**

**Dagoeneko bosgarren denboraldia daramazu txapelketetan profesional moduan esku hartzen. Zer moduz?**

Ondo, txapelketetan jarduteko gogoz jarraitzen dudalako, horrek motibatzen nau; txapelketako lehen saioan jo beharreko kolpeak. Normala den moduan, urte hauetan momentu onak eta txarrak egon dira.

**Gipuzkoako txapeldun, eta Euskadiko zirkuituan lider. Euskal Herrian ez zarete profesional asko izango.**

Profesionalak dezente daude, baina txapelketetan bakarrik jarduten dugunok, min hartuta dagoen Olazabal kontutan hartuta, beste bospasei egongo gara. Ondoren, eskolak ematen dituzten golf irakasleak, horiek ere profesionalak dira.

**Oraingoz, baina, ez duzu eskolak ematen ibili nahi.**

Ez, neurri handian eskolak ematen hasterakoan uko egiten diezulako txapelketei. Ez da entrenatzeko astirik egoten, eta borroka hori da benetan zaila. Izan ere, badakit golf eskolak ematen ondo bizi naitekeela, baina niri txapelketetako lehia gustatzen zait. Horrenbeste bidaia, etxetik kanpora egon beharra, poltsikotik ordaindu beharreko dirua... zertarako? Txapelketa ona egiterakoan galdera horiek ahaztu egiten dira.

**Ekainean Frantziako Openerako sailkatu zinen, Europako handi batera, lehenengoz.**

Handienekin jokatzeko ehun lagun geunden aurreko fasean, eta hiru jokalarirendako tokia zegoen. Gogoan dut azken kolpe erabakigarria jo aurretik sentitu nuena, bihotz taupadak entzun ere egiten nituen. Zorionez, horrelakoetan hazi egiten naiz, hori dut ona, kikildu beharrean motibatu egiten naizela. Eta, pilota barrura sartu nuen.

**Golfa bakarkako jokoa da. Horrelakoetan, zeini besarkatu?**

Ondoan dagoen edozein ezaguni [Barre]. Gogoan dut partida hori jarraitzen Madrilgo, Kataluniako... beste golf jokalari batzuk nituela ondoan. Eurak kanporatuta zeuden, eta pilota zulora sartu zenean *green* barrura etorri ziren saltoka, eurak sailkatu izan balira moduan. Euretako bat azazkal barik geratu zen ni ikusten.

**Behin sailkatuta, txapelketa osoa aurretik.**

Sekulakoa izan zen behingoz Europako onenekin jokatzea. Pentsa, Robert-Jan Derksen jokalariarekin egokitu zitzaidan jokatzea, eta jokatzen genbiltzala halako batean *birdie*-ak egiten hasi zen bata bestearen segidan. Konturatu orduko 10.000 lagun batu ziren gure partida ikustera, argazkilariak...

Baina ez hori bakarrik. Entrenamendu saioetako batean Rory McIlroy-rekin jokatu ahal izan nuen, duda barik, lehenago edo geroago munduko lehenengo postura salto egingo duen gaztea.

**Pentsa torneo hori irabaziko bazenu.**

Milioi bat euro ekarriko nituzke etxera [Barre]. Baina ez da bidezkoa; Europako torneo onenean jokatzeko 30 euro ordaindu behar izan nituen, eta dena nuen eskura: hotel onena ordainduta, auto ofiziala edozein lekutara joateko, makilak eraman gabe ere momentuan ekartzen dizkizue zure neurrikoak... Baina hori ez da gure egunerokoa. Alps Tourra jokatzen nabil aurten, torneo bakoitzak 120 euro balio du, eta hotelak, bidaiak... dena gure poltsikotik ordaindu behar izaten dugu.

**Esan dugu bosgarren denboraldia dela, eta gaztea zara oraindik.**

Bai. Diotenez golf jokalari bat 30 urte bete ostean hasten da onena ematen, psikologikoki gauzak beste patxada bateaz hartzen dituenean. Nik pilotari ez diot orain dela bost urte baino hobeto jotzen, baina askoz jokalari hobea naiz, esperientzia handiagoa dut.

**Zertan igartzen da hori?**

Hobeto ezagutzen dituzu zure puntu indartsuak, eta zure ahuldadeak. Lehen zelaia ez banuen ezagutzen ez nuen txapelketa ondo hasten. Orain, ahal badut lehenago entrenatu egiten dut jokatu behar dudan zelaian, baina ez bada posible ez da ezer gertatzen.

**Eta zer duzu hobetzeko?**

Esan dut une erabakigarrietan, dena jokoan dagoenean ez naizela kikiltzen, eta hori ona da. Baina, torneo batera justu-justu sailkatu banaiz, kosta egiten zait hurrengo egunetan torneoa motibatuta jokatzea, badakidalako sailkapenean aurrera egitea zaila izango dela. Hori landu behar dut, baina egia esan, ez dakit zelan [Barre].



Mikel Galdos, egubakoitz eguerdian, Aretxabaletan. Gaur bertan Murtziara doa, Espainiako txapelketara. XABIER URTZELAI

ESPERIENTZIA

**"Pilota ez dut orain dela bost urte baino hobeto jotzen, baina jokalari hobea naiz"**

KRISIA

**"Orain dela bost urte baino torneo askoz ere gutxiago daude, baita babesleak ere"**

IZARRAK

**"Tiger Woods ez da Jack Nicklaus-en zenbakietara iritsi, baina oraindik gaztea da, eta lortuko du"**

**Krisiak, ala Tiger Woods-en aferak egin dio min handiagoa golfari?**

Ez dakit ba... Beno, Tiger itzuli da, eta alde horretatik ez dago arazorik. Krisia ere asko igarri dugu, orain dela bost urte baino torneo gutxiago daudelako.

**Cristiano Ronaldok edo Messik futbola, edo Federerrek tenisa utziko balute, ez dut uste kirol horiek horrenbeste igarriko zuketenik. Zergatik golfak bai?**

Tiger Woods-en ondoan Cristiano Ronaldo hutsaren hurrengoa delako. Golfean benetako jainkoa Jack Nicklaus izan zen, 60ko hamarkadan hasi eta 90eko hamarkada bitartean 18 torneo nagusi irabazi dituen bakarra, eta Tiger Woods oraindik ez da zenbaki horietara iritsi, baina oraindik gaztea da, eta iritsiko da.

Nik esango nuke Michael Jordanen ondoren egon den kirolari handiena Tiger Woods dela. Hain zuzen, Jordan erretiratu eta Nike gainbehera hasi zenean, Jordanek berak gomendatu zion Nike etxeari Tiger Woods fitxatzea.

**Kuriosoa da, herritarren gutxiengo batek praktikatzeko babesleek zenbat diru gastatzen duten kirol horretan.**

Gertatzen da hemen ez dela kirol horren ezaguna, baina AEBtan, edota Ingalaterran ikaragarri jarraitzen den kirola dela. Hor, herri txikienak ere golf zelaia du ondoan.

**Espainiako txapelketarako bidea hartuko duzu orain. Ze asmo?**

Asmoa txapelketa irabaztea da, helburu horrekin joaten gara txapelketetara, eta ez bada lortzen ez da ezer gertatzen, baina horrek izan behar du helburu nagusia.

**Golfean ikasi nahi duenari, ze gomendio emango zenioke?**

Pazientzia izateko. Lehenengo hamar ahaleginetan normalena da pilota ukitu ere ez egitea. Zenbat bider egon naizen makilak uretara botatzeko deseatzen!!!

**ASPEKTU LEGALAK** > ERREGISTROA

# Gorputz hezkuntza ordu eta erdira murriztu dute

Borja Moiuak eta Josu Murgoitiok gogor kritikatu dute Hezkuntza Sailak hartutako neurria; ondorioak ekarriko dituela ohartarazi dute



Bergarako eskola kirol taldea. GOIENKARIA

**LARRAITZ ZEBERIO** > ARRASATE

Hasi berria den ikasturteak ia oharkabean pasa den berrikuntzarekin etorri da: Hezkuntza Sailak bi ordutik ordu erdira murriztu du eskoletan heziketa fisikoari eskaini beharreko denbora. *Guraso.com* webguneko kolaboratzaile Borja Moiuak eta Josu Murgoitiok uste dute atzerapausoa dela hori: "Ikerketek diote ohitura osasungarriak garatzeko gutxienez ordubeteko jarduera fisiko intentsiboa egin behar dutela umeek". Diotenez, desplazamendurako, dutxarako, eta jolasak azaltzeko denbora kenduta, umeek gehienez 20 minutu egingo dituzte mugimenduan. "Gizartea gero eta sedentarioagoa da, elikadura ohiturak gero eta okerragoak dira eta haur gizentasuna arazo bihurtuko da laster, dagoeneko arazo ez bada". EAEn haurren %32k gehiegizko pisua dute eta %14k gizentasun arazoa dute. Heziketa fisikoko saioak garrantzitsuak direla ziurtatu dute.

**HEZIKETA FISIKOA, EZINBESTEKOA**

"Heziketa fisikoko saioetan sinesten dugu", adierazi dute Moiuak eta Murgoitiok. "Bertan lantzen diren edukiak oso aberasgarriak dira, beste edozein ikasgairen parean jartzen dugu gure ikasgaia". Susmoa dute, baina, gutxien uste dugunean eskolatik kanpo utziko dutela heziketa fisikoa.

**IRAKASKUNTZA** > 4MAT SISTEMA

## Ikasteko prozesuak bat baino gehiago dira

**L.Z.** > ARRASATE

Ez da teoria berria eta defendatzaileek uste dute kontuan hartuz gero eskola porrota gutxiago izango liratekeela. Teoria horren oinarria da ikasle guztiek ez dutela informazioa modu berean biltzen, interpretatzen eta antolatzen. Ikasgaiak azaltzeko ikasleen prozesu kognitiboa zelakoa den ezagutzea oso garrantzitsua da. Prozesu hori aktiboa, erreflexiboa, teorikoa edo pragmatikoa izan daiteke. Ume batzuek ikusmenaren memoria baliatzen dute; beste ume batzuek, aldiz, nahiago izaten dute gauzak analizatzea eta horien zergatiak ezagutzea... UNEDeko heziketa fakultateko kide Catalina Alonsok eta Domingo Gallegok CHAEA testa sortu dute (Cuestionario Honey Alonso de Estilos de Aprendizaje). 80 galdera ditu eta ikasleek bete behar dute. Amaitutakoan aplikazio informatiko baten bitartez jakingo dugu ume horrek informazioa batzeko eta barneratzeko nagusiki erabiltzen duen prozesua zein den.



Irakaslea azalpenak ematen. CEDIM NEWS

**4MAT SISTEMA**

Behin lan hori eginda, ikerlariek gomendatzen dute ikasgeletan 4MAT sistema erabiltzeko. Proposamena da ikasgaia zortzi etapa dituen prozesu baten bitartez azaltzea. Modu horretan ikasteko lau prozesu nagusiak hartzen dira kontuan. Xehetasun gehiago *guraso.com* webgunean aurkituko dituzue.

**AMATASUNA** > AUTONOMOAK

## Emakume autonomoek ere eskubideak dituzte

**L.Z.** > ARRASATE

Ama direnean emakume autonomoek soldatapean dauden emakumeen eskubide berak dituztela irakurri dugu *Consumer* aldizkarian. "Amatasun baimena etenik gabeko 16 astekoa izango da, eta hilean gutxieneko autonomo kuota ordaindu izanez gero (250 euro), amatasun baimenarekin hilero 841,80 euro jasoko dute". Hiru baldintza bete behar dituzte emakume horiek: Gizarte Segurantzan afiliatua egotea, kuoten ordainketa eguneratua izatea eta gutxieneko kotizazio epea betetzea. Soldatapeko emakumeek ez bezala, autonomoek jarduera ekonomikoaren gaineko aitortza aurkeztu behar dute amatasun baja bideratzerakoan. Bertan zehaztu beharko dute ze pertsonak kudeatuko duen negozioa autonomoa bajan den bitartean, edo, kasua izanez gero, negozioaren behin-behineko etena.

**PSIKOLOGIA** > BANANTZEA

## Banantzeak sortzen duen antsietate sindromea

**L.Z.** > ARRASATE

Ume txikiek negar egiten dute gurasoengandik banantzen baditugu. Antsietate sindromea 2 urtetik aurrera gertatzen bada, aztertu egin behar dugu zergatik gertatzen den. Arrazoiak asko izan daitezke: eskola berria delako, gurasoak banandu egin direlako, beldurrak sortzen direlako... Antsietate sindrome hori tratatu egin behar da, gehienbat ume nagusiagoetan agertzen bada. Garrantzitsua da lehenbailehen detektatzea; izan ere, ohikoa izaten da sindrome hori bestelako batzuekin nahastea; eskolara joan nahi ez izatea, gure arreta bereganatzeko nahia... Umeari azaldu behar zaio gurasoa joan arren itzuli egingo dela eta komeni da banantze saio laburrekin hastea. Prozesu terapeutikoak daude horretarako.



Umea eskolara bidean negarrez. VIENTO ESPECTRAL

> ARGITALPENA

### 'Adopción hoy' izeneko liburua kaleratu du psikologian doktore Felix Loizaga Latorrek

Umeak adoptatu dituzten familia batzuei jarraipena egin ostean idatzi du liburua Felix Loizaga doktoreak. 40 lagunetik gora elkarrizketatu ditu; familia hartzaileak, adoptatuak izan diren gazteak, unibertsitateko irakasleak... Umeen heziketan baliagarriak izan daitezkeen teknikak eta formulak jasotzen ditu liburuak. Hori bakarrik ez, alde guztien bizipen eta emozio pertsonalak ere agertzen dira bertan. Mensajero argitaletxean aurkituko duzue.

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko,
**zatoz gure webgunera**
guraso.com



> MARTZIAL AGIRRE
Eskultore bergararraren gaineko liburua aurkeztu zuten egubakoitzean > 30



> ARGAZKI LEHIAKETA
Urrian emango da aditzera zeintzuk diren lehiaketako irabazleak > 36-39



> KONTRAZALA
Joseba Tapiak kaleratu duen diskoaren inguruan hitz egin digu > 40




Anger Duhalde eta Hapa Hapa taldeak kontzertu benetan dibertigarria eskaini zuen. JOSETXO ARANTZABAL



*Txitxo* eta *Yul* musika jartzen ibili ziren. JOSETXO ARANTZABAL

# 'Las chicas son guerreras' eta 'Ellos las prefieren gordas'

**80KO HAMARKADA**

Urtetan atzera egin zuten zapatu gauean Arrasateko gaztetxean

**ARRITXU BARRUSO** > ARRASATE

*La chica de ayer*, *Enamorado de la muerte*, *Lola por que estás sola*, *Ellos las prefieren gordas*... Kantu horiek eta antzeko beste askok 80ko hamarkadara eraman zuten zapatu gauean Arrasateko gaztetxea. Herrian jaio berri den Kooltur Ekintza elkarteak antolatutako lehenengo ekimena izan da asteburu honetakoa: 80ko hamarkadako festa. Gau borobila izan zen: giro bikaina, musika ona eta umore ona.

**BOST PROPOSAMEN BERRI**

Ain_80 taldearekin hasi zen zapatuko gaua. Ain_1 taldeko neskek, bi gitarra akustiko, biolin, teklatu eta kaxa flamenkoarekin eurek bakarrik dakiten moduan, modu xuxurlarian, jo zituzten RIPen *Enamorado de la muerte* eta Cicatrizen *Lola* abestiak, besteak beste. Bukaera ezin hobea izan zen: *Las chicas son guerreras*.

Mary Stardust bakarlariarekin egin zuen aurrera gauak. Mary Mayk beste behin ere bere talentu eta ausardiarekin harrapatuta utzi zituen ikusleak. Gau hartarako aukeratutako izenari ohore eginez, David Bowieren abestiren bat jo zuen, baita U2, Madona eta Bruce Springsteenenak ere. Antonio Vegaren *La chica de ayer* ere jo zuen.

The Convicts etorri zen gero. Punk-oi! egiten duten Arrasateko gazteek aho zabalik utzi zituzten ikusleak erakutsitako mailarekin. *La naranja mecánica* filmeko janzkera aukeratu zuten, ezin aproposagoa. RIP, Cock Sparrer, Ramones eta The Adicts taldeak bertsionatu zituzten.

Gaueko laugarren taldea oholtzara igo zenerako Arrasateko gaztetxea jendez lepo zegoen. Anger Duhalde eta Hapa Haparen txanda zen, baina arazoak izan zituzten Arrasatera iristeko eta haien ordez Marlaska y Los Pegamoides taldea igo zen taula gainera. Angerrek sekulako ikuskizuna eskaini zuen eta gaztetxe guztia dantzan ipintzea lortu zuten Orquesta Mondragonen *Ellos las prefieren gordas* eta *A quien le importa lo que yo haga* kantu mitiko eta dantzagarriekin. V40-k egindako Egan taldearen bertsio bat ere eskaini zuten. Txantxa eta broma artean Faith No More talde indartsuaren bertsio batekin argi utzi zuten taldeak daukan maila.

ESANAK

**"Oso pozik gaude eta argi geratu da, gainera, Arrasateko taldeek sormena eta irudimena dutela gauza berriak egiteko"**

**Iker Barandiaran** > Antolatzailea

Edukazino SKAxa taldeak itxi zuen gaua. Never Surrenderkoak dotore igo ziren oholtzara eta Bad Manners taldean oinarritutako errepertorioa eskaini zuten. *Skinhead girl* eta *Sally Brown* kantuak jo zituzten, besteak beste, eta gaztetxeko txarangako kideen laguntza ere izan zuten.

Kontzertuak amaitu ostean, baina, 80ko musikak jarraitu egin zuen. *Txitxo* eta *Yul*, gaztetxeko *aitxitxak*, goizaldera arte ibili ziren musika ipintzen.

**HASIERA BIKAINA**

Antolatzaileak pozik daude gauak emandakoarekin. 300 pertsona inguru egon ziren 80ko gau magikoan. Hurrengo jaialdia azaroaren 4an izango da: Ertzainak taldeko Gari etorriko da gaztetxera.



Liburuaren egile Mikel Lertxundi eta Larraitz Arretxea eta Bergarako alkate Agurne Barruso eta Kutxako Luis Sagasta. ARRITXU BARRUSO

**AURKEZPENA** > 'EL ESCULTOR MARCIAL AGUIRRE ESKULTOREA' LIBURUA

# XIX. mendeko eskultore gipuzkoar onena izan zen Martzial Agirre

Bergarako eskultorearen bizitza eta obra jasotzen dituen liburua aurkeztu zuten egubakoitzean

**ARRITXU BARRUSO** > BERGARA

Hamar urteren ostean Larraitz Arretxea eta Mikel Lertxundi ikerlarien lanak argia ikusi du. Egubakoitz eguerdian aurkeztu zuten Bergarako osoko bilkuren aretoan *El Escultor Marcial Aguirre eskultorea* izeneko liburua. Monografiko hori orain arte Martzial Agirre eskultore bergararrari buruz idatzi den lan osatuena da. Liburuaren egileek, besteak beste, Erromako, Madrilgo eta Bilboko artxiboak bisitatu dituzte dokumentazio lana egin ahal izateko.

**SAN ANTONIOTIK ERROMARA**

Martzial Agirre 1840ko azaroaren 23an jaio zen Bergarako San Antonio auzoan. 15 urterekin Bergarako eskola industrialean hasi zituen ikasketak. "Ikasketen emaitzak ikusita argi ikusten da artearekiko zuen zaletasuna. Marrazketa teknikoa eta halako ikasgaietan oso emaitza onak ateratzen zituen, baina gainontzeko ikasgaietan ez horrenbeste", azaldu zuen egubakoitzean Lertxundik.

1958an, Bergarako ikasketak amaitu gabe, Erromara alde egin zuen: "Erroma garai hartan artearen muina edo meka zen". Erroman 17 urte igaro zituen eta arlo artistikotik eta eskultore gisa ondo formatu zen hainbat akademiatan. Garai hartan Fortuny eta Rosales margolarien adiskide egin zen.

1975ean itzuli zen Euskal Herrira, bigarren karlistaldia bizibizi zegoenean, eta Donostiara joan zen bizi izatera. Gipuzkoan egindako lehen urteak oso oparoak izan ez arren, gerora hainbat eta hainbat eskultura egin zituen.

Martzial Agirre bergarararrak egindako lanak dira, besteak beste, Bergarako epaitegiaren fatxada nagusian dagoen *Justizia* eskultura, Mutrikuko *Churruca*, Donostiako Victoria Eugenia antzokiaren eta Maria Cristina hotelaren artean dagoen *Oquendo* eta Loiolako santutegiaren aurrean dagoen *San Ignacio*.

XIX. mendeko eskultore gipuzkoar onena izan zen Arregi. Nazioarteko erakusketetan ere hartu zuen parte eta bere teknika oso ona zen. Gaur egun Arregiren 70 eskultura eta 13 margolan daude dokumentatuta.

'EL ESCULTOR MARCIAL ARREGUI ESKULTOREA'

## Liburua kultura etxean dago salgai

Larraitz Arretxeak eta Mikel Lertxundik bi zati nagusitan banatu dute liburua. Lehenengo atalean Bergarako eskultorearen bizitza kontatzen da: Bergaran, Erroman eta Donostian igarotako urteak. Bigarren atalean, berriz, haren lanak kategoriaka banatuta daude: erretratuak, eskultura erlijiosoa, eskultura monumentala, dekoratiboa... Liburuaren amaieran, gainera, katalogo bat ere egin dute Arregiren lanekin. Datozen bi asteetan kultura etxean egongo da salgai liburua 12 euroren truke.




Liburuaren azala. GOIENKARIA

**ZINEMA**

## '80 egunean' filmari saria eman dio Gehituk

Mariasun Pagoaga protagonista duen filmak bigarren saria irabazi du

**A.B.** > BERGARA

Gehituk urtero ematen dio *Sebastiane* saria gay, lesbiana eta transexualen komunitatearen balioak hobekien islatzen dituen filmari. Bada, aurten, Mariasun Pagoaga arrasatearra protagonista duen *80 egunean* filmak eroan du saria.

Sari banaketa ekitaldia egubakoitz iluntzean izan zen Donostiako Kurt Art Gallery aretoan eta saria Donostiako Zinema eta Giza Eskubideen Jaialdiko zuzendari Jose Luis Rebordinosek eman zuen. Mariasun Pagoaga bera hantxe izan zen.

Jose mari Goenaga eta Jon Garaño gipuzkoarren *80 egunean* filmak Zinemaldian jasotzen duen bigarren saria da Gehiturena. Joan den martitzenean Donostia Hiria saria jaso zuen Donostiako balio sozialak, kulturalak eta paisajistikoak pantailan ondoen azaltzen dituen film luzea izatearren.

> HEZKUNTZA

### Idazle Eskolan izena emateko epea zabalik urriaren 11ra arte

Bergarako Idazle Eskolako arduradunek guztia prest daukate zortzigarren ikasturteari ekiteko. Eskolak urriaren 13an hasiko dira; UNEDen egoitzan emango dira, zapatu goizetan, 09:00etatik 13:30era. Matrikula egiteko beharrezko informazio guztia *http://ieskola.asmoz.org* atarian dago.

114 ikasle igaro dira Idazle Eskolatik eta 90ek amaitu dute gradu ondokoa



# ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:

**943 25 05 05**

Edo zatoz ordezkaritza batera.

**Eskelaren prezioa: 110 euro.**
Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **150** euro.

**Goienkaria: astero, 39.000 irakurle (CIES).**



OROIGARRIA

## Juan Mari Oregi Arregi

Arrasaten hil zen 2010eko irailaren 22an, 72 urte zituela.

*Onetsi dezatela guztiok...*



Santa Agedako koruak.
Arrasaten, 2010eko irailaren 27an.

## asteburuko albuma



**'Rezikletas' kale ikuskizuna.** Birziklatutako eta berrerabilitako materialekin perkusio kontzertu dibertigarria eskaini zuen zapatu arratsaldean Turukutupa talde gasteiztarrak. Lau bizikleta musika instrumentu koloretsu eta zaratatsu bihurtu zituzten. Euri zaparrada artean Biteri plazako estalpean aterpe polita topatu zuten ume eta guraso askok.



**Gazte txokoak martxan.** Udako oporrak amaituta Arrasateko gazte txokoetan ere hasi dute ikasturte berria. Asteon ireki dituzte ateak eta gazte askotxo hurbildu dira dagoeneko. Ikasturte berrirako ekintza asko egiteko gogoarekin itzuli dira gazteak. San Andres auzoko gazte txokoan, esaterako, sukaldaritza ikastaroa egin dute eta primeran ibili dira.

## jaiotakoak



**Danel Castillo Romero**
Arrasate > 3,700 kilo. Irailaren 19an. Gurasoak: Eva (Arrasate) eta Mikel (Arrasate). Argazkian, Danel jaioberria, amarekin.



**Sara Uranga Etxabe**
Arrasate > 3,400 kilo. Irailaren 21ean. Gurasoak: Maider (Arrasate) eta Asier (Arrasate). Argazkian, Sara jaioberria, amarekin.



**Iñigo Guridi Isasisasmendi**
Oñati > 3,480 kilo. Irailaren 21ean. Gurasoak: Miren (Oñati) eta Rafa (Oñati). Argazkian, Iñigo jaioberria, aitarekin.



**June Bengoa Gonzalez**
Arrasate > 3,480 kilo. Irailaren 22an. Gurasoak: Arantzazu (Arrasate) eta Jon (Arrasate). Argazkian, June jaioberria, sehaskan lo.



**Mikel Amiano Martin**
Aretxabaleta > 3,500 kilo. Irailaren 22an. Gurasoak: Urtzi (Aretxabaleta) eta Nora (Aretxabaleta). Argazkian, Mikel jaioberria, sehaskan lo.



**Haizea Amado Urkia**
Oñati > 3,130 kilo. Irailaren 22an. Gurasoak: Oihana (Oñati) eta Eneko (Oñati). Argazkian, Haizea jaioberria, sehaskan lo.

BABESLEA


# iragarkilaburrak.com

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Altsasu.** Etxe txikia saltzen dut Altsasun, leku lasaian, urbasara begira, 4 logela, 4 komun, sukaldea, egongela, txokoa eta lorategirarekin. 300.000 euro.609-78 96 86 (Iker)

**Aramaio.** Etxebizitza berria saldu edo errentan ematen da Aita Gabirel jauregi kalean. Lehen solairua.Bi logela, komuna, egongela-sukaldea, trastelekua, ganbara eta garajea. Berokuntza indibiduala. Jantzia. Eguzkitsua. 664-74 90 23 edo 679-45 57 62

**Arbizu.** Arbizun etxea salgai edo alokagai. Lau logela, egongela, sukaldea, komuna, bi balkoi. Etxabera pasadizoa. Ganbara. Lehenengo pisua. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 948-46 09 08.

**Aretxabaleta.** Aukerabikaina. Guztiz eraberritutako etxebizitza bat salgai muru-bide kalean. 50 m2, egongela, bi logela, sukaldea, bainugela, trastelekua eta balkoia. Oso argitsua. 23 m2 ganbara eta guzti. Erdi jantzia. 214.000 euro. 943-79 96 55 edo 685-72 46 86

**Arrasate.** 50 metro koadroko etxebizitza salgai Agerre kalean. Bi logela, egongela, sukaldea. Komuna eta leihoak berrituak. Berogailuarekin. 126.000 euro. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 657 71 41 68

**Arrasate.** 90 metro koadroko etxebizitza bat salgai musakolan. Hiru terraza dauzka. Igogailuarekin. Estreinatzeke. 17 metro koadroko garaje itxia. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 618-00 89 17

**Arrigorriaga.** Etxea Renfe geltoki, autobus geltoki, eskola, parkea eta polikiroldegien artean dago. Sarrera, sukaldea, egongela, hiru gela, bi bainugela eta ganbara ditu. Banakako gas naturala (ura eta berogailua). Altzariak barne nahi badituzue. Informazio gehiago: *http://go.To/arrigorriaga.*prezioa 288.000 euro.

**Ataun.** Ataun (San Martin), eraikin ia berri batean, 100 m2ko etxea salgai + terraza + patioa + garajea + trastelekua, 280.000 euro. Deitu: 659-53 50 73

**Bergara.** Boni Laskurain kalean etxebizitza salgai. 90 metro koadro, ganbararekin, hiru logela, egongela, bi komun eta lehorlekua. Balkoi handia. 675 71 50 36

**Betelu.** Betelun pisua saltzen da. Berria, hiru logela, sukaldea, egongela, bi bainugela eta igogailuarekin. Prezio onean. 629-40 32 20.

**Durango.** Alde zaharra. 71 m2. Kanpoaldera begira. Altzariz hornituta. 2 logela. Egongela. Sukaldea. Komun bat. Guztiz berriztuta. Kanpotik (2006): fatxada, atalondoa, eskailera eta teilatua. Barrutik (2007): parketa (Elondo), sukaldea (Fagor elektrotresnak eta junkers galdara ), gres, berokuntza (gas naturala), kristal bikoitzeko leihoak, ate blindatua. Berehala bizitzera joateko aukera. 223.000 euro. 607-71 53 53

**Durango.** Atiko zoragarria salgai durangoko alde zaharrean. Duela urte eta erdi erabat berriztatua. Erabat jantzia. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Kapritxosoa. Etorri ikustera! Interesatuok deitu zenbaki honetara: 659-42 58 90

**Etxarri-Aranatz.** Pisua alokagai edo salgai Etxarri Aranatzen. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 654-23 41 02

**Lakuntza.** Horman sartutako armairudun hiru logela, sukalde jantzia, egongela, 2 komun, balkoi eta ganbara. Lurreko berogailua. 948-57 60 03 eta 608-77 68 41.

**Legazpi.** Etxebizitza salgai 74m2, altzariz hornituta. Legazpiko san martin auzoan kokatzen da. Deitu: 943-73 13 52 /678-08 63 21

**Luz Saint Sauvert.** Luzetik 500 metrora, 58 metro koadroko duplex bat salgai. Bi logela, komuna, sukaldea, antena parabolikoa. Dena, oso egoera onean eta jantzita. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 635-74 62 26

KOROSTI

INMOBILIARIA

**Ibargarai 3 • BERGARA**
**Tel. / Faxa: 943 76 97 97**
**www.inmokorosti.com**

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**Bergara:**
- Masterreka 92 $m^2$. Prezio ona.
- Masterreka. 88 $m^2$. Igogailuarekin.
- Artekale 60 $m^2$. Berritua. 153.258 €.
- Irizar pasealekua 70 $m^2$. Igogailuarekin.
- Zabalotegi 60$m^2$. Oso ondo
- Barrenkale 82 $m^2$. Berritua.
- Osintxu. 70 $m^2$. Igogailuarekin. 153.258 €.
- Bidekurutzeta 103 $m^2$. Duplexa. Oso ondo.
- Lorentxoko 73 $m^2$. Eraikitzeko.
- Burdiñate 53 $m^2$. Prezio ona.
- Matxiategi 65 $m^2$. Igogailuarekin.
- Ibarra 47 $m^2$. Berritua.
- Bolu 96 $m^2$. Garajearekin.
- Simon Arrieta 70 $m^2$. Prezio ona.
- Zabalotegi 54 $m^2$. 154.761 €.
- Aranerreka 80 $m^2$. 189.319 €.
- San Lorentzo 68 $m^2$. Berritua.
- Zubiaurre 52 $m^2$. Berritua.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza Martokon, Maduran, San Pedron, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.**
- Artekale. Logela bat. Berritua.
- **AUKERA.** Etxebizitza adosatuak salgai Elgetan. Lehen mailako materialekin. Eraikuntza bukatua.
**PREZIO EZIN HOBEAK: 249.210 €tik hasita**

**Antzuola:**
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa eta Ibarre auzoa. Etxe onak.
- Herriko plaza 95 $m^2$. Oso etxe ona.
- Beheko auzoa. Berritua. 135. 000 €.

**Elgeta:**
- San Roke 72 $m^2$. Berritua.
- San Roke 80 $m^2$. 80 $m^2$-ko ganbara eta lokalarekin.
- Salbador 90 $m^2$. Berritua.

**Soraluze:**
- Atxuri 49 m2. 117.618 €.

**943 25 05 05 sailkatuak@goiena.com**
**http://www.goiena.net/sailkatuak**

Egueneko 18:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK:**

**ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU. LOKALA SALDU/ALOKATU. GARAJEA SALDU/ALOKATU. MOTORRA SALDU/ALOKATU.**

Iragarki partikularretan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**Ondarroa.** Etxebizitza salgai Ondarroan. Iñaki-deuna kalean kokatua, berriztua eta eguzkitsua. 54 m2ko etxebizitza, 2 logela, egongela bat, komuna eta sukaldea, balkoi estaliarekin. 626-00 09 74

**Orio.** Orioko hondartzan pisu berria salgai. Bi logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela eta bi autorentzako garajea. Terraza eta lur saila ere baditu. Prezio onean. 686-14 29 16

**Tolosa.** Tolosako alde zaharrean 50 m2-ko atikoa salgai. Egoera onean dago eta oso argitsua da. Igogailua badu. 132.000 euro (22.000.000 pta). 943-43 00 20. Zuzeneko salmenta.

**Zegama.** Goierrin, landa turismorako berritutako baserri bat salgai (100 m2ko hiru solairu). Biko 6 logela bainugelekin, eta norberarentzat apartamentua, sarrera propioarekin. Bikain hornitutako sukaldea. 10.000 m2ko lur saila. Salmenta premiazkoa denez, prezio egokia dauka. Deitu 13:00etatik 15:00etara: 658-73 51 75.

**Zornotza.** Etxebizitza salgai Euban. 3 logela, egongela bat, sukaldea, 2 bainugela, ganbara eta berogailua. 345 m2-ko lursailarekin. Aukera paregabea. 695-70 18 58

### 102. EROSI

**Arrasate** edo inguruetan 120.000-150.000 euroko etxebizitza erosteko asmoa daukat. Interesa dutenek, deitu: 615-71 04 68

**Segura.** Baserria erosiko nuke Seguran edo inguruan, konpondua edo konpontzeko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 618-34 52 14

### 103. ERRENTAN EMAN

**Aia.** Aian etxebizitza berria errentan. Armendigain kalean. Hiru logela, 2 bainugela, jangela, balkoia eta garajea. Informaziorako deitu 629-68 04 10 telefonora.

**Arrasate.** Altamiran, Jose Luis Iñarra kalean, hiru logelako etxebizitza ematen da errentan. 639-96 01 21

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan. Hiru logela, bainugela bi eta egongela. Berokuntza zentrala. Ekonomikoa. Eguzkitsua. 686 62 25 75 edo 635 27 72 31

**Arrasate.** Ikasleentzako etxebizitza ematen da errentan. Hiru logela (bat bikoitza), sukaldea, egongela, komuna eta terraza. Unibertsitatetik bost minutura eta erdigunetik gertu. 696-34 29 26

**Arrasate.** Unibertsitatetik gertu. Sukaldea, egongela, bi komun eta hiru logela. Berokuntza sistemarekin eta igogailuarekin. Deitu 680-48 94 04 telefono zenbakira

**Arrasate.** Uribe auzoan pisua alokatzen da, unibertsitatetik gertu. Bost pertsonentzat egokitua, lau logela, bi komun, egongela eta sukaldea. 653 71 78 94 edo 697 18 30 02

DEBA
**GARAIA**
**INMOBILIARIA**
**Telesforo Aranzadi 2**
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA**
- Arrizuri, 97 $m^2$, garajearekin.
- Aranerreka, 80 $m^2$, oso ondo. Prezio ona.
- Matxiategi, 72 $m^2$, eguzkitsua. Prezio ona.
- Zabalotegi, 54 $m^2$, eguzkitsua, oso ondo.
- Bolu, 103 $m^2$, oso eguzkitsua.
- Burdiñate, 104 $m^2$, oso ondo.
- Ibargarai, apartamentua, 40 $m^2$, berria, garajea aukeran.
- Justo Garate, 80 $m^2$, oso ondo.
- Herrilagunak, 60 $m^2$.
- Martoko, 87 $m^2$, ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 $m^2$, ondo.
- Ibargarai, 80 $m^2$ oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 $m^2$ oso ondo.
- Zabalotegi 80 $m^2$, eguzkitsua, berritua.
- Elorregi 70 $m^2$, terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Toki Eder plaza, 98 $m^2$, oso ondo.
- Simon Arrieta, 57 $m^2$, terrazarekin.
- Zurradero, 81 $m^2$, oso ondo.
- Zubieta, 125 $m^2$, terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 $m^2$, berritua. Oso eguzkitsua.
- Iparragirre, 190 $m^2$.
- San Antonio, 65 $m^2$, eguzkitsua.
- Masterreka, 46 $m^2$, eraikuntza berria.
- **Etxebizitza berrien erainkuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren, Bidekurutzetan, Zubietan, Martokon eta San Lorentzon.**
- San Lorentzon aukera ona.
- Basarte. 69 $m^2$. Oso ondo.
- Toki Eder plaza. 54 $m^2$. Apartamentua. Oso ondo.
- Artekale, 48 $m^2$. Apartamentua. Oso ondo.
- **Garajeak salgai San Lorentzon. Aukera ona.**

**SORALUZE**
- Baltegieta, 83 $m^2$, berria.
- Sagarerreka, 58 $m^2$, aukera ona.

**ANTZUOLA**
- Eguzki auzoa, Antigua auzoa eta Sagasti auzoa.

**Bergara.** Hiru logelako etxebizitza ematen da errentan erdigunean. 626-81 71 28

**Bergara.** Etxebizitza bat ematen da errentan Matxiategi kalean. Jantzia. 943-76 46 15 edo 652-53 42 81

**Durango.** Pisua errentan durangon. 4 logela, egongela eta sukaldea. 5. Pisua igogailuarekin.657-79 54 95

**Eskoriatza.** Erdialdean etxebizitza ematen da errentan. Hiru logela, egongela eta bi bainugela. 652-70 08 00

**Etxarri-Aranatz.** Pisua alokagai edo salgai .654-23 41 02.

**Etxarri-Aranatz.** Etxarri Aranatzen pisua alokairuan. Jantzita. 3 gela, sukaldea, egongela eta komuna. Deitu 636-66 08 76 telefonora.

**Gernika-Lumo.** Etxebizitza bat alokatzen da Gernikan, San Juan ibarran. 90 m2 ditu, 3 gela eta 2 komun. Guztiz hornituta. Oso txukuna. 699-06 07 71

### 104. ERRENTAN HARTU

**Antzuola** edo inguruan etxebizitza bat hartuko nuke errentan. Bi edo hiru logelakoa. 603-62 08 84

**Bergara.** Etxebizitza hartuko nuke errentan. 450-500 euro ordain ditzaket hilean. 699-66 33 63

**Bergara.** Etxebizitza behar dut errentan. 617-12 61 44

**Elorrio.** Elorrion etxebizitza baten bila nabil, alokatzeko. Altzariekin eta berogailuarekin. 94-658 21 91. Bego

### 105. ETXEAK OSATU

**Aretxabaleta.** Etxebizitza osatzeko logela bat daukagu errentan. Logela handia, bainugela eta guzti. 695-72 79 55

**Arrasate.** Lau logelako etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da. Bertan langileak bizi dira. 653-71 44 57

**Arrasate.** Irakasle ikasketak egiten hasiko garen bi ikasle gara, Enara eta Amaia, eta hiru logelako etxebizitza osatzeko pertsona bat behar dugu. Etxea egoera onean dago, 200 euro izango lirateke pertsonako (gastuak aparte). Etxeak bainugela, sukaldea eta 3 logela ditu, indibidualak eta bakoitza bere idazmahaiarekin. 695-71 92 38

**Arrasate.** Etxea osatzeko gela bat edo bi ditugu errentan. 630-71 35 83

**Arrasate.** Logela ematen da errentan. 619-78 63 41

**Arrasate.** Pertsona bat behar dut Erguin aldean etxebizitza osatzeko. 670-59 73 62

**Arrasate.** Etxea osatzeko gela bat edo bi ditugu errentan emateko. 630-71 35 83

**Arrasate.** Pisukide baten bila gabiltza etxebizitza osatzeko. Pisua erdigunean dago, alde zaharrean. Handia eta argitsua da: lau logela, bi komun, sukaldea eta egongela handi eta eguzkitsua ditu. Alokairua + wifi + telefonoa, 200 euro pertsonako, hilean, gehi gastuak. Animatu eta deitu.665-71 69 10 edo 943-77 07 00

**Arrasate.** Logela ematen da errentan Musakolan. Deitu 610-82 02 17 zenbakira.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan erdigunean, ikasleentzat zein bestela. 648-86 05 49 edo 666-68 00 04

**Arrasate.** Uribe auzoan pertsona bat behar da bi pertsonaz osatutako etxea betetzeko. Etxebizitza handi eta erosoa, etxetresna elektriko guztiekin. Kalefakzio zentrala. Langileak gara. Garajerako aukera. 657-72 51 65

**Azpeitia.** Alokairuan herritik hurbil, leku paketsu eta lasaian: egongela eta jangela balkoi handiarekin, sukaldea, 2 komun eta 4 logela argitsu ekipaturik. Informazio gehiago: 943-81 34 13 eta 606-07 48 31

**Bergara.** Neskaz osatutako etxebizitzaren batean logela bat beharko genuke errentan, 2010-2011ko ikasturterako, institutuko irakasle batentzat. 943-76 31 42 (Leire)

**Donostia.** Antiguan alokairu kontratudun gela argitsua eta garaje itxia, hilean 375 euro (errenta aitorpeneko diru laguntzarekin 280 euro!) + 50 euro gastuengatik irailak 15etik aurrera epe luzerako (12 hilabete gutxienez) 114 m2ko pisuan. Beste 2 langilerekin partekatuko litzateke. 2 bainu, egongela handia, sukalde berri-berria, terraza (14m2) eta piszina. Paregabeko aukera. Garrantzitsua: urte osorako banku abala eskatzen du etxearen jabeak. Hots egiguzu lehenbailehen:626-22 92 58.

**Iruñea.** Urritik aurrera Iruñeko Aralar kalean pisua osatzeko langile baten bila gabiltza. 220 euro + gastuak. 660-97 01 12

**Oñati.** Pertsona baten bila nabil etxea osatzeko. 606-15 11 47

**Oñati.** Logela bat daukagu errentan emateko. 617-14 39 41

**Ordizia.** Logelak alokatzen dira. Deitu: 638-25 44 10

**Madril.** Logela bila nabil Madrilen, Atocha inguruan. Deitu 600-33 01 10 zenbakira.

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Oñati.** 14 metro koadroko garaje bat (marra) salgai mendiko kalean. 28.000 euro. Deitu 661-68 11 24 telefonora.

**Oñati.** Garajea salgai. Olakuan. 7 eta 9 etxebizitzen sotoan. Arantxa. 943 78 19 36 edo 665 70 93 32.

**Segura.** Seguran garajea salgai. 696-721 515

### 203. ERRENTAN EMAN

**Bergara.** Garaje bikoitza edo bi indibidual ematen dira errentan Boni Laskurain kalean. Lehen solairuan. 610 65 91 29 edo 677 91 68 38.

### 204. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Arbolapeta inguruan garajea errentan hartuko nuke. 652 74 57 42.

## 3/ LOKALAK

### 301. SALDU

**Bergara.** Bulegotarako egokitutako 90 metro koadro inguruko lokala eta 100 metro koadro inguruko lokal industriala salgai bergaran. Atsegina eta bista ezin hobeak. Aukera ona. 943-76 33 56

### 302. EROSI

**Oñati.** Lokala erosiko nuke, 25-120 metro koadro bitartekoa. Deitu 943 79 66 75 telefono zenbakira.

### 305. ERRENTAN EMAN

**ARRASATE**

**Arrasate erdigunean bulegoa daukat konpartitzeko.**

**657 72 00 49**

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Durango.** Andre euskaldun bat behar dugu gure umea zaindu eta etxeko lanak egiteko. Zazpi ordu egunean. Telefonoa: 605-82 50 26

**Dublin (Irlanda).** Gure haurra zainduko duen au pair baten billa gabiltza. Familia euskal-irlandarra. Euskaraz hitz egitea ezinbestekoa da. Astean bost eguneko lana eta urriaren hasieran hastekoa. Dublin inguruan. *igorgon@gmail.com*

**Durango.** Goizean umeak eskolara eraman, etxeko lanak egin eta arratsaldean eskolatik hartzeko pertsona baten bila gabiltza. Guztira, 4 ordu egunean. 625-70 28 36 edo 605-74 70 47

**Durango.** Emakume euskalduna behar da ume txiki bat zaindu eta etxeko lanak egiteko, 8 ordutan. 656-73 77 79

**Legazpi.** Emakumea behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 649-72 21 68

**Tolosa.** Emakumea behar da etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko. Autoa eduki behar du. 943-65 12 64 edo 600-33 62 14

**Segura.** Seguran emakume euskaldun bat behar da umeak zaintzeko goizetan. 943-80 20 03 / 638-46 34 89

**Zarautz.** Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko, aiton-amonak zaintzeko edo kamarera lanetarako. Zarautz inguruan. 649-27 73 53

### 402. ESKAERAK

**Aretxabaleta.** Emakumea gertu nagusiak eta umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Feli. 943-53 33 92

**Aretxabaleta** eta inguruko herrietan emakume gaztea etxebizitzak garbitzeko gertu. 607 73 16 78

**Arrasate** eta inguruan emakumea gertu sukaldari lanetarako. Udan edo asteburuetan. Bost urteko esperientzia. Agu. 679-73 92 66

**Arrasate** eta inguruko herrietan, neska gertu zerbitzari lanetan jarduteko. Esperientziaduna. 680-53 97 54

**Arrasate.** Neska euskalduna irailetik aurrera arratsaldeetan haurrak zaintzeko prest 606-15 11 47

**Arrasate edo Bergara.** Esperientziadun neska prest asteburuetan pertsona edadetuak zaintzeko. Bertakoa naiz. Joana. 637-18 07 23

**Azpeitia.** 20 urteko neska euskalduna, haurrekin lanean esperientzia duena bai begirale moduan, zaintzaile moduan... Arratsaldez haurrak zaintzeko prest egongo nintzateke. 606-42 64 14

**Aretxabaleta.** Aretxabaleta eta inguruko herrietan emakume gaztea etxebizitzak garbitzekogertu. 607-73 16 78

**Beasain.** Emakumezkoa lan bila dabil, haurrak edo adinekoak zaintzen, tabernak, atariak... Garbitzen. Jardunaldi osoan edo orduka. 606-72 82 76

**Beasain.** Esperientzidun neska, gauetan edo asteburuetan adinekoak zaintzeko lan bila dabil (aukera egonez gero, interna moduan). 626-42 05 50.

**Beasain.** Esperientzidun emakumea, adinekoak zaintzen lan egingo nuke. 680-31 70 95

**Bergara.** Bergaran haur heziketa ikasi duen emakume euskaldun bat umeak zaintzeko gertu. Egun guztian. 943-53 42 54 edo 688-65 30 62

**Bergara.** Umeak zaintzeko, garbitasun lanak egin edo nagusiak zaintzeko (azken honetan esperientziaduna) gertu nago. Ordutegi malgua. 676-89 50 13

**Bergara.** Emakumea gertu etxeak garbitzeko eta baita sukaldari laguntzaile lanetan aritzeko ere. 665-75 41 32

**Bergara.** Bergara, Antzuola edo Zumarraga. Neska gertu etxeak, elkarteak eta abar garbitzeko, nagusiak zaintzeko edota zerbitzari eta plantxa lanetan jarduteko. Ordutegi malgua. Erreferentzia onak eta esperientzia handia. 943-76 66 24 edo 634-91 81 73

**Bergara.** Neska euskalduna gertu arratsaldez umeak zaintzeko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 685-77 56 35

**Bergara.** Emakumea gertu goiz eta arratsaldez umeak edo nagusiak zaintzeko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 610-34 97 88

**Debagoiena .** Neska euskaldun bat gertu nagusiak zaintzeko gauez zein egunez, edo etxean bertan lo eginda ere bai. Klinika laguntzailearen titulua daukat. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 646-38 46 81

**Debagoiena.** Enkofratze lanetan aritutako lehen mailako ofiziala lanerako gertu. Bestelako lanak ere egingo nituzke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 673-03 09 60

**Debagoiena.** Emakumea gertu sukaldari lanak egiteko asteburuan edo nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanetarako. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 619-78 63 41

**Debagoiena.** Emakumezko batek etxeko lanak egin eta zaharrak zainduko lituzke.Interesatuok deitu zenbaki honetara: 606-64 16 09

**Debagoiena.** Sukaldean, jatetxe zein hoteletan lan egingo nuke. Baita nagusiak zaintzen edo eraikuntzan ere. Informatika ezagutzak ditut. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 602- 12 03 47

**Debagoiena.** Neska gertu zerbitzari edo garbiketa lanetarako. 679-04 42 68

**Debagoiena.** Neska gertu garbiketan, sukalde laguntzaile zein nagusi eta umeak zaintzen jarduteko. 630-20 12 03 edo 638-10 28 85

**Debagoiena.** Neska euskalduna gertu DBHrainoko eskola partikularrak emateko. Goi mailako ikasketak egiten ari naiz. Ikaslearen etxera bertara joateko aukera. 10 euro orduko. 16:00etatik aurrera deitu. 690-66 19 80

**Debagoiena.** Emakume arduratsua gertu nagusiak zaintzeko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 635-00 58 17

**Debagoiena.** Arrasateko neska gazte euskalduna goizetan etxeak garbitzeko prest. Esperientziaduna. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 618-41 24 79

**Debagoiena.** Neska gertu edozein lanetarako. Zerbitzari lanetan esperientziaduna naiz.Interesatuok deitu zenbaki honetara: 671-99 92 70

